

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia

Azterketa eta gogoetak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKARA EAEn: GAITASUNA, ERABILERA ETA IRITZIA

— *Azterketa eta gogoetak* —

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

PRESIDENCIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

Argitaraldia: 1.a, 2013ko uztaila

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Gráficas Irudi S.L.

ISBN: 978-84-457-3307-3

Legezko Gordailua: VI 575-2013

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako
sailburuordea



Hitzaurrea

EUSKARA, HAZKUNDE IRAUNKORRERANTZ

Ikerketa zinez interesgarria da, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, Iñaki Martínez de Lunaren zuzendaritzapean, egingakoa eta liburu honetan biltzen dena. Interes handikoa da, jakina, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren bidez Gobernu hau bideratzen ari den hizkuntza politika kudeatzearen ardura dugunontzat, oso informazio baliotsuak eskaintzen baititu gure eginkizuna zorrotz eta zehatz bete ahal izateko. Baina zeharo interesgarriak dira, era berean, euskararen biziberritze prozesura hurbildu nahi duen ororentzat, orrialdeotan eskaintzen diren datu eta gogoetak.

Argia da azterketaren abiapuntua: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zenetik hogeita hamar urte igaro ondoren, zein neurritan ari da betetzen lege hark aurreikusi eta erabakitakoa? EAeko herritar guztiek aitorturik dute bi hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta herri aginteei dagokie eskubide hori baliatzeko neurri egokiak hartzea, besteak beste inork ez dezan hizkuntza bereizkeriarik nozitu. Horren guztiorren gaineko gogoetarako informazio eta hausnاربide baliotsuak eskaintzen dizkigu eskuartean dugun txosten honek.

Elebitasun orekatu baterako ibilbide-orriaren oinarria ezarri zuen lege hartatik honaino, euskararen biziberritze prozesuak argi erakutsi digu hiru faktoreren gainean bermatzen dela hizkuntza ez hegemoniko baten etorkizuna: lege babes nahikoa, euskararen

sustapena ardatz hartzen duen hizkuntza politika eraginkor eta baliabidez hornitua, eta herritarren atxikimendua. Hiru faktore horien indarraren eta elkar eraginaren baitan egongo da, nagusiki, euskararen biziraupena –neurri batean baita garapena bera ere–, eta hori bera frogatzen du argiro, hain zuzen ere, azken 30 urteotan euskararen bilakabide lurraldez lurralde erkatuak, azken datuek agerian jartzen dutenez (V. Inkesta Soziolinguistikoa): ezagutza –oso sendo– eta erabilera –ezinbestez eta ulergarria denez, apalago, baina etengabea– hazi dira, baina ez era homogeen euskararen lurralde guztietan: hazkunde orokor hori Euskal Autonomia Erkidegoko bilakaerari zor zaio nagusiki, eta oso neurri apalean, Nafarroako Foru Erkidegokoari. Iparraldeko gizarteak, berriz, euskal hiztunak galtzen jarraitzen du, nahiz eta gazteen artean joera aldatzen ari dela pentsatzeko daturik ere agertzen hasi den.

Baina nolakoa da gaur eguneko hizkuntza errealitatea? Nolako errealitatean gauzatu behar dira hirurak faktore horiek eta, oro har, elebitasun orekatu baten aldeko herri aginteen eta gizarteko askotariko eragile sozial, ekonomiko, kultural eta mediatikoen lana?

Liburuak biltzen duen txostenak erakusten duenez, alde batetik, euskara eta gaztelania erabiltzeko gai direnak ez dira herritar guztiak, eta, bestetik, bietan hitz egiteko gai direnen artean gehiago dira gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak. Horri gehitu behar zaio euskarak –agian, zehatzago esanda, euskararen *erabilerak*– ez duela, herritarren pertzepzioaren arabera, erakargarri eta eztabaida ezina bihurtzen duen abantaila sozialik, eta gaztelania dela nagusi gure gizartearen eguneroko harremanetan. Paradoxatik asko duen egoera da hau, aldi berean kontuan hartzen badugu 30 urteotan euskal gizarteak, herri aginteen bulkada aitzinarazle eta jarraitua nahiz askotariko eragileen jardun etengabea tarteko, egin duen ahaleginaren emaitza: mundu zabalean eredarri gertatzen ari den biziberritzea ezagutu du euskarak. Biziraupena hainbat belaunalditarako bederen bermatu dion biziberritzea. Baina, neurri berean bermatua ote du euskarak hizkuntza orok ezinbestekoa duen bizi-indarra?

Bizi-indarraren auzia da, nire ustez, euskararen eta, beraz, elebitasun sozial eta indibidual orekatuaren sustapenean modu batera edo bestera ari garenok lehentasunez heldu beharko geniokeen hausnarketa- eta lan-gaia. Eta, horretarako, gogoan hartu beharko ditugu liburu honetan ageri direnak, hainbat alorretan argia egingo digutelako.

Eta euskararen bizi-indarraz ari garenez, biziki interesgarria suertatuko zaigu hizkuntza-gaitasunak eta erabilerak faktore soziolinguistiko objektiboekin duten loturen azterketan barneratzea, gaitasun erlatiboak, transmisio eragileek, erabilera inguruneak, bizi-zikloarekin zerikusia duten egoerek eta abantaila sozialek duten eraginaren neurriaz jabetzeko. Hala ere, faktore objektibo horien garrantziak ez gintuzke eraman behar balio, iritzi eta jarreraren alorretako faktore subjektiboek garrantzia ukatzera, ukazio horrek kaltetu bailezake euskara normalizatzeke lana. Nire iritzian, herritarren gogoia da giltzarri nagusia, eta askatasuna baliatuz eta aukera librean gauzatu eta garatu behar da herritarren gogoia, baina jakinda gure gogo hori baliatzearen eta praktikara eramatearen esku dagoela euskara hedatu eta indartzea edo kamustu eta alboratzea. Neurri handi

batean, ez bakarrik, gure jarrera eta jardueraren esku dagoela, alegia, askatasunetik bidea egitea euskarak osasuntsurantz edo ahulerantz, aukera biak baititu aurrez aurre herritarron gogoak.

Orrialdeotan jasotako txostenak proposatzen duenez, “euskararen aldekoagoak diren baldintzak, indibidualak (elebitasun indibidual orekatua) zein sozialak (gizarte-elebitasun orekatua), sortuz eta denboran zehar mantenduz bakarrik lortu daiteke”, besteak beste, gizarte osoari bermatzea hizkuntza hautua askatasun osoz eta eremu guztietan –harreman eremu formalean nahiz ez-formalean, alor sozialean zein profesionalean–, eta, horrekin batera, hizkuntzarengatik inor inoiz inon baztertzen ez duen gizarte bat eraikitzea.

Izan ere, EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko oreka iraunkorra –ez soilik legala– lortzea da, duela 30 urte euskararen biziberritzearen oinarriak ezarri zituen legearen –eta hura garatzera geroztik etorri diren gainerako arauen– jomuga nagusia, eta denon eginkizuna da, denona baita euskara, haien betetze maila onargarri baten alde lan egitea, nor bere talaiatik, nor bere erantzukizunetik, adostasun zabalenetik, lankidetzeta leialetik. Gizarte heldu bati dagokion legez. Bizikidetzeta eta gizarte kohesiorako bidaia baita, euskara sustatzean geure gizartearentzat nahi duguna. Izan ere, legeria gaur baino neurri handiagoan betetzeak, denona den ondarea –euskara– denon hizkuntza izatera iristeak, herritar guztiei bi hizkuntza ofizialak eta bietariko edozein aukeratzeko eskubidea egiazki bermatzera heltzeko bidea egiten jarraitzeak, eta hori guztia adostasunik zabalenarekin egiteak –eraginkorrak izan nahi badugu egin behar den moduan, alegia– bizikidetzeta harmoniatsuago batera eta gizarte libreago batera hurbilduko gaitu, zalantzarik gabe.

Nire hitzaurre hau amaitzeko, liburu honetan biltzen den ikerketaren zuzendariari eta Prospekzio Soziologikoen Kabinete osoari zorionak eman nahi dizkiet, lan benetan bikaina egin baitute, eta gure Administrazio arloen arteko elkarlana hauspotzeko erabakia azpimarratu nahi dut.

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA
PÉREZ DE ARRIBA
Prospekzio Soziologikoen
Kabinetea



EGILEAREN AITZIN SOLASA

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak prestatu zuen azterketa honen zimentarria. Lantalde horrek 2011n burutu zuen iritzi-inkesta batean hainbat informazio baliotsu eskaini zuela ikusita piztu zitzaidan datu horietan murgiltzeko zirrara. Erabilitako hurbilpena, beraz, ez dagokio ohiko paradigma zientifikoari; alegia, teoriaren argira hipotesiak landu eta, horien betetze maila frogatzeko asmoz, informazio enpirikoa bildu eta ustiatzeari.

Lanketa honen bidea jaki-min soziolinguistiko hutsetik abiatu da, EAEko gizartearen lagin adierazgarri batek zabalduetako aukera. Zer ote da euskarazko gaitasun eta hizkuntza horren erabilera zein iritzien atzean dagoena? Zein dira hiru hizkuntza-dimentsio horiei lotuen agertzen diren biztanleriaren izaera eta ezaugarriak?

Azken buruan, kezka horien gakoa da euskarak etorkizun oparo izan dezan behar den giro mota mikro-soziala bilatzea. Egoera horretara iristeko bidea zein izan litekeen arakatzea.

Ahalegin arakatzaille gisa uler daitekeen lanketa honek analisi estatistikoak baliatzen ditu, gehienbat. Bukaerako gogoetan baino ez da erreferente teorikorik aipatzen, betiere aurretik estatistikoki landutako informazioa hobeto ulertu eta interpretatzeko ahaleginetan. Jardun estatistikoak zein horien gaineko gogoetak, bi-biek, xede garbia dute: euskal –euskararen– soziolinguistikaren ezagutzan beste urrats bat gehiago egitea, horrela baino ez baita posible izango normalkuntzaren helmugara hurbiltzea.

Bide horretan lagungarri –ezinbesteko?– izango da herri-administrazioaren atal ezberdinen arteko elkarlana –lan honen inguruan gertatu bezala– baliatzea. Azken buruan, euskararen normalkuntzak zehar-lerroko ardura izan behar du –gizarte zein administrazio alor guztiena–, ez soilik euskara-zerbitzu batena.

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK ETA HELBURUAK	13
2. EUSKARA-GAITASUNA	14
2.1. Hizkuntza-gaitasunarekin lotutako alderdiak	16
2.1.1. Ahozko gaitasunarekin	16
2.1.2. Gaitasun erlatiboarekin	19
2.1.3. Gaitasunarekin daukan harremanaren laburpena	21
2.2. Familiako hizkuntza-ingurunearekiko harremana	22
2.2.1. Oinarrizko hizkuntza-gaitasunen familiako transmisioa	22
2.2.2. Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren familiako transmisioa	27
2.2.3. Familiaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko harremanaren laburpena	28
2.3. Ikasketetako hizkuntza-ingurunearekiko harremana	30
2.3.1. Oinarrizko hizkuntza-gaitasunak hezkuntza-sistemaren bitartez transmititzea	30
2.3.2. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa hezkuntza-sistemaren bitartez transmititzea	34
2.3.3. Hezkuntza-sistemaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko harremanaren laburpena	36
3. EUSKARAREN ERABILERA	38
3.1. Euskararen erabilera, familiako kideen artean	39
3.1.1. Familiako kideen arteko erabilera, biztanleria orokorraren kasuan	39
3.1.2. Familiako kideen arteko erabilera, gazteen kasuan	42
3.1.3. Familiako kideen arteko erabileraren laburpena	44
3.2. Euskararen laneko edo ikasketetako erabilera	45
3.2.1. Laneko edo ikasketetako erabilera, biztanleria osoaren kasuan	45
3.2.2. Laneko edo ikasketetako erabilera, gazteen kasuan	47
3.2.3. Laneko edo ikasketetako erabileraren laburpena	49
3.3. Euskararen lagun arteko erabilera	50
3.3.1. Lagun arteko erabilera, biztanleria osoaren kasuan	51
3.3.2. Lagun arteko erabilera, gazteen kasuan	53
3.3.3. Lagun arteko erabileraren laburpena	53

4. EUSKARARI BURUZKO IRITZIAK	55
4.1. Iritzi joera nagusiak	55
4.2. Iritzi-joera nagusiekin lotutako alderdiak	57
4.2.1. Biztanleria osoaren iritzi-joerak	57
4.2.2. Gazteen iritzi-joerak	60
4.2.3. Iritzi-joeren laburpena	62
5. ONDORIOAK ETA GOGOETAK	65
5.1. Gaitasun linguistikoa	65
5.1.1. Elebitasun indibiduala eta gizarte-elebitasuna	65
5.1.2. Gizarte-elebitasun desorekatua	66
5.2. Gaitasun linguistikoari buruz	66
5.2.1. Familia-ingurunearen harremana gaitasun linguistikoarekin	68
5.2.2. Hezkuntza-ingurunearen harremana gaitasun linguistikoarekin	69
5.3. Euskararen erabilerari buruz	70
5.3.1. Familian	70
5.3.2. Lantokian edo ikaskideekin	71
5.3.3. Lagunartean	72
5.4. Motibazioei eta iritzi-joerei buruz	73
5.4.1. Motibazioen eragina	73
5.4.2. Iritzi-joera nagusiak	74
6. AZKEN GOGOETAK	77
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	79

1. Aurrekariak eta helburuak

Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, 2011ko urtarrilean, Euskara: erabilera, jarrerak, politikak izenburuko inkesta baten emaitzak ezagutarazi zituen. Inkesta horrek emandako informazioak, azterketan sakontzeko eta EAEko errealitate soziolinguistikoari buruzko gogoeta egiteko aukera ematen zuen. Txosten honen bidez, azterketa berrietan sakontzeko aukera horiek errealitate bihurtu nahi ditugu.

Jakina denez, lurralde, autonomia erkidego edo eremu politiko-administratibo berean bi hizkuntza edo gehiago elkarrekin bizi diren egoeretan, horien erabileraren kudeaketak ezadostasunak sor ditzake eta, batzuetan, desadostasun horiek gatazkak sortzen dituzte.

EAEEn, bi hizkuntza ofizial¹ daude, eta, errealitate hori kontuan hartuta, indarrean dagoen lege-araudiak euskararen eta gaztelaniaren bizikidetzaren harmoniatsua sustatzeko arauketa bat ezartzen du, oinarritzko bi irizpidetatik abiatuz:

- ▶ Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.
- ▶ Herri aginteek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute, eta neurri egokiak hartuko dituzte.²

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zenetik hogeita hamar urte igaro direlarik, une egokia izan daiteke arretaz aztertzeke legez aurreikusi eta erabakitakoa zein neurritan ari den betetzen edo, aldez, benetako praktika oraindik ere legeak agindutakotik nahiko urrun dagoen.

EAEko egoera soziolinguistikoari buruzko balantze zehatza egiteko, hizkuntza ofizialen ezagutzari eta erabilerari dagozkien alderdi batzuk sakon aztertzea komeni da –txosten honek euskararen egoeraren azterketa du ardatz–, lege-esparruak xedatutakoari dagokion gaur egungo betetze-mailaren diagnostiko zehatza egiteko. Horixe da, hain zuzen, txosten honen helburu nagusia –informazio eta gogoeta sakonagoak eskaintzea–, eta, horretarako, aipatutako inkesta erabili dugu. Dena den, horrek ez du esan nahi beste informazio-iturri batzuetara jotzea egokitzat jo dugunean iturri horiek erabiltzeari uko egin diogunik.

¹ “Hizkuntza-aniztasun ‘funtzionalaren’ ikuspegitik, 9 hizkuntza dauzkagu: gaztelania, portugesa, errumaniera, arabiera, txinera, ingelesa, frantsesa, alemaniera eta ukrainera”. (Unzurrunzaga, 2008: 36).

² *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeko* (1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legea, 16o. EHAA, 1982ko abenduaren 16koa) 5. eta 4. artikulua, hurrenez hurren.

2. Euskara-gaitasuna

Lehenik eta behin, aldi berean elkarri eraginez³ euskara-gaitasunaren transmisio eta bereganatzearen bi mailarekin lotzen diren aldagaiak zeintzuk diren jakiten ahaleginduko gara, ahozko gaitasuna bakarrik aztertzea mugatuta:⁴

a. Ahozko gaitasuna: *ongi hitz egitea / nahiko ongi / zertxobait / batere ez.*

b. *Ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dutela diotenen –hau da, pertsona elebidunen– gaitasun erlatiboa: euskaraz hitz egiteko gatzelaniaz *hitz egiteko* baino *erraztasun handiagoa, bera edo txikiagoa* duten jakitea.

Hizkuntza-gaitasunek inkestan agertzen diren gainerako azalpenezko aldagaiekiko duten harremanari buruzko bi tratamenduak egin aurretik, aldagai independente edo iragarle horien arteko korrelazio eta adierazgarritasun estatistikoari buruzko zenbait esplorazio-azterketa egin ditugu. Ondorioz, azterketak egiteko 16 aldagai aukeratu ditugu. Aldagai horiek 5 bloketan bildu daitezke:

► Aldagai soziodemografikoak:

- Sexua.
- Adina.
- Jatorria.

► Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak:

- Familiako kideekin hitz egin ohi duen hizkuntza.⁵
- Lanean edo ikastetxean hitz egin ohi duen hizkuntza.
- Lagunekin hitz egin ohi duen hizkuntza.

³ Azterketa hau egiteko, Erregresio Kategorikoa (CatReg) izeneko aldagai anitzeko analisisa erabili dugu. PASW Statistics (SPSS) programako 18. bertsioan eskura daiteke.

⁴ Ahalmen esplikatiboa CatRegek ematen dituen *Garrantzi* datuetatik lortu dugu: “Erregresio koefizienteaz eta korrelazioez gain, garrantzi erlatiboaren Pratt neurriak (Pratt, 1987) iragarleek erregresioan egiten duten ekarpena interpretatzen ere laguntzen dute. Banakako beste garrantzien inguruko banakako garrantzi goratuak erregresiorako funtsezkoak diren iragarleei dagozkie. (...) Erregresio-koefizienteen kasuan ez bezala, neurri honek iragarleen garrantzia modu batukorrean definitzen du, hau da, iragarle multzo baten garrantzia iragarle bakoitzaren banakako garrantziaren batura da”. (Meulman eta Heiser, 2005: 145).

⁵ *Familiarekin hitz egin ohi duen hizkuntza* aldagaia eta *Bi gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa* aldagaia, biak, familiarekin lotuta daude, baina informazio ezberdina jaso dezakete, bi arrazoiengatik: a) gurasoek hizkuntza batean gaitasun jakin bat edukitzeak ez du zertan esan nahi seme-alabekin erabiltzen dutenik; b) familiarekin erabiltzeko ohitura edukitzea galdetutako pertsonaren gaur egungo familia-unitatearekin lotuta egon daiteke, bereziki adin batetik aurrera, eta gerta daiteke gurasoen jatorrizko familia-nukleoa beste bat izatea.

► Iritzizko edo jarrerazko aldagaiak:

- Ondorengo esaldietako bakoitzarekiko adostasun edo desadostasun maila:⁶
 - *Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko.*
 - *Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat.*
 - *Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati.*
 - *Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea.*
 - *Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik.*

► Hizkuntza-transmisioaren aldagaiak:

- Eskolaz kanpo euskara klaseetara joatea edo ez.
- Bi gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa.
- Lehen mailako ikasketak, OHOkoak edo DBHkoak, zer hizkuntzatan egin ziren (edo egiten ari den).

► Ideologia eta nortasun politikoekin lotutako aldagaiak:

- Norbere burua *ezker muturra/eskuin muturra* eskalan kokatzea.
- *Abertzale* sentimendua edukitzea edo ez.

Bigarrik, azterketa horiek berriz egin ditugu, euskarazko hizkuntza-gaitasun aktibo eta pasibo bakoitzak (ahozkoa, ulermena, idazmena eta irakurmena) hizkuntza transmititzen duten eragile nagusiekin –familia eta hezkuntza-sistema– duen harremana zehaztasun maila handiagoarekin ezagutzeko.

⁶ Bost esaldi horiek inkestan sartutako guztien artean aukeratu ditugu, horiei guztiei azterketa faktorial bat aplikatuta, esaldi kopurua murrizteko eta aipatutako analisisian sortutako faktoreen dimentsioak ongien irudikatzen dituztenak bakarrik erabiltzeko.

2.1. Hizkuntza-gaitasunarekin lotutako alderdiak

Txosten honen abiapuntua den inkestaren arabera, EAEko 15 urteko edo hortik gorako biztanleen⁷ ahozko gaitasuna honela banatzen da: % 27k ongi hitz egiten dute; % 10ek nahiko ongi; % 24k zertxobait hitz egiten dute; eta % 39k ez dute batere hitz egiten (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 3); hau da, pertsona elebidunak (ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute) % 37 dira. Horiek dira inkestan barne hartu diren zenbait aldagai independenteren argitan aztertuko ditugun aldagai dependenteetatik, lehenengoari dagozkion datuak.

2.1.1. AHOZKO GAITASUNAREKIN

Ahozko gaitasunarekin (*ongi hitz egitea / nahiko ongi / zertxobait / batere ez*) zerikusia daukaten elementuak aztertzeko analisi estatistikoaren bitartez sortutako ereduak aipatutako aldagaiaren⁸ % 73,1 azaltzen du, eta zifra hori esanguratsua da gai sozialen analisisen ohiko emaitzekin alderatuta; izan ere, jarduera sozialetan faktore potentzial askok esku hartzeak eta faktore horien arteko harreman konplexuek zailtasunak sortzen dituzte.

Azterketa honen gairako aipagarrienak diren emaitzei bakarrik erreparatuz gero, zera nabarmendu behar dugu:


- Aztertutako 16 aldagai independente edo iragarleetatik, horietako lau ez dira estatistikoki esanguratsuak⁹ aztertutako aldagaiarekiko harremanari dagokionez. Hauetaz ari gara: demografiko batez (sexua); iritzizko edo jarrerazko batez (*kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko, saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik*); eta ideologia eta nortasun politikoekin lotutako bi aldagaiz (norbere burua *ezkerra/eskuina* eskalan kokatzea eta *abertzale* sentitzea edo ez).

⁷ Aurretik esan dugun bezala, V. *Inkesta Soziolinguistikoak* (2012) 16 urtetik gorakoei buruzko informazioa jasotzen du. Horri bi azterketetako lagin-prozedurei atxikitako informazio-tarteak eransten badizkiogu, kasu batean eta bestean lortutako emaitzen artean ezberdintasun batzuk sortzen ditu.

⁸ Erregresio Kategorikoak (CatReg) emandako R² determinazio-koefizientearen bitartez lortutakoaren arabera.

⁹ % 99ko adierazgarritasun mailan oinarrituta; hau da, aztertutako aldagaien artean erlazioa dagoen 100 alditatik batean bakarrik dago ezustekoa eta ausazkoa, ez-erreal, izateko arriskua. Hurrengo analisisetan ere eutsi diogu adierazgarritasun estatistikoko irizpide horri.

1. grafikoa. Gaitasun linguistikoaren gaineko aldagai independenteen azalpen gaitasuna (%)



- ▶ Euskarazko ahozko gaitasuna azaltzeko ahalmenaren erdia baino gehiago (% 54,7) testuinguru soziolinguistikoarekin lotutako aldagaiei dagokie: familiako kideekin –batez ere–, lagunekin, lanean edo ikasketetan erabili ohi den hizkuntza.
- ▶ Heren bat (% 32,5) hizkuntzaren transmisioarekin lotutako aldagaiei dagokie (*Zein hizkuntzatan egin zenituen –edo egiten ari zara– oinarrizko ikasketak, OHO edo DBHkoak?; Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa; Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?*). Transmisioarekin lotutako aldagai horien artean, ikasketetako hizkuntza nabarmentzen da, eta, ondoren, distantzia pixka batera, gurasoen hizkuntza.
- ▶ % 9,8 adina eta jatorria aldagai soziodemografikoei dagokie, eta % 1,7 bakarrik iritzi/jarrerazko aldagaiei.

Erantsita dagoen taulan, 16 aldagaietako bakoitzak euskara-gaitasuna azaltzeko egiten duenekarpena agertzen da, gai multzoka antolatuta, baita emaitza horien adierazgarritasun estatistikoa ere.

AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIAK	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 9,8	
Sexua	,000	,689
Adina	,050	,000
Jatorria	,048	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 54,7	
Euskararen erabilera familiarekin	,232	,000
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,150	,000
Euskararen erabilera lagunekin	,165	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 1,5	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	,007	,000
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,002	,000
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,003	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,005	,000
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	,002	,158
Transmisioko aldagaiak	% 32,5	
Escolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	,003	,000
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	,117	,000
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarritzko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,205	,000
Ideologia eta identitate politikoaren aldagaiak	—	
Ezker/eskuin ardatza	,002	,351
Euskal nazionalismoa	,010	,117

(*) Multzoak osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

2.1.2. GAITASUN ERLATIBOAREKIN


Erreferentziako inkestari jarraiki, pertsona elebidunen banaketa, bi hizkuntza ofizialen ezagutza orekatua edo desorekatua izatearen arabera, honakoa da: elebidunen % 28k antzeko erraztasuna dauka euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko; % 45ek gaztelaniaz euskaraz baino hobeto hitz egiten du; % 27k euskaraz gaztelaniaz baino hobeto hitz egiten du (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 25). Hurrengo azterketa elebidunen kolektibo hori osatzen duten kategoriei lotutako ezaugarriak ezagutzera zuzenduta dago.

Analisi estatistikoan, pertsona elebidunen euskara-gaitasun erlatiboa (gaztelaniarekin alderatuta) azaltzeko sortutako eredu gaitasun horren % 70,9 azaltzera iristen da. Aztertutako 16 aldagai independente edo iragarleetatik, berriz ere lau aztertutako aldagaiarekin duten harremanari dagokionez ez dira estatistikoki esanguratsuak. Hauetaz ari gara: demografiko bat (*sexua*) eta ideologia eta nortasun politikoei lotutako biak (*ezkerra/eskuina* eskala eta *abertzale* sentimendua), aurreko kasuan bezala, euskara-gaitasunari dagokionez; eta transmisioarekin lotutako aldagai bat (*Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait eskola klaseetara?*).

Euskarari dagokion hizkuntza-gaitasuna azaltzeko garaian, adierazle adierazgarrien ahalmena honela banatzen da:

- Testuinguru soziolinguistikoarekin lotutako hiru aldagaiak bi herenera (% 64) igo dira (euskaraz hitz egiteko gaitasuna edukitzeari edo ez edukitzeari buruzko datuei dagokionez): *Familiako kideekin, lagunekin, lanean edo ikasketetan erabili ohi den hizkuntza.*

2. grafikoa. Gaitasun linguistiko absolutu eta erlatiboen gaineko aldagai independenteen azalpen gaitasun alderatua (%)



HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIK	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 10,1	
Sexua	,000	,287
Adina	,078	,000
Jatorria	,023	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 64,2	
Euskararen erabilera familiarekin	,266	,000
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,028	,000
Euskararen erabilera lagunekin	,348	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 5,2	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	,007	,000
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,008	,000
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,015	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,008	,000
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	,014	,000
Transmisioko aldagaiak	% 19,4	
Escolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	,013	,270
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	,174	,000
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarrizko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,020	,000
Ideologia eta identitate politikoaren aldagaiak	—	
Ezker/eskuin ardatza	,005	,169
Euskal nazionalismoa	-,007	,183

(*) Multzoak osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

- ▶ Hizkuntzaren transmisioarekin lotutako aldagaien azalpen-ahalmena bosten batekoa izatera jaitsi da (% 19), eta estatistikoki esku-hartze adierazgarria duten aldagaiak hiru izatetik bi izatera pasatu dira: batez ere, *gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa* eta, neurri txikiagoan, *lehen mailako ikasketak, OHO eta DBHkoak, zer hizkuntzan egiten diren*.
- ▶ Aldagai soziodemografikoek toki txikia daukate (% 10), eta haien ekarpena *adina* aldagaian oinarritzen da bereziki –gaitasunarekiko handitu egiten da– eta, askoz ere neurri txikiagoan, *jatorrian*.
- ▶ Gaitasun erlatiboaren azalpenaren % 5 bakarrik dago iritzi/jarrerazko aldagaiekin lotuta.

2.1.3. GAITASUNAREKIN DAUKAN HARREMANAREN LABURPENA

Ondorioz, zera esan dezakegu:

- ▶ Testuinguru soziolinguistikoa (erabilera-inguruneak) da euskarazko ahozko gaitasunarekin lotura estuena daukan elementua, dela zenbaki absolututan (euskara jakitea edo ez) dela zenbaki erlatibotan (euskaraz gaztelaniaz baino hobeto, berdin edo okerrago jakitea), eta harreman hori bereziki garrantzitsua da gaztelaniazkoaren pareko euskarazko ahozko gaitasuna ematerako orduan.
- ▶ Familiaren testuingurua (*familiako kideen arteko erabilera*) agertzen da gaitasunarekin lotuen; testuinguru soziolinguistikoak gaitasun erlatiboarekin daukan harremanaren oinarria, aldiz, batez ere, *euskararen lagun arteko erabilera* da, nahiz eta ondoren, nahiko gertu, *familiako kideen arteko erabilera* dagoen.
- ▶ Hizkuntzaren transmisioaren eragileek ere rol garrantzitsua betetzen dute euskara-gaitasunari dagokionez –baina erabilera inguruneek daukatena baino txikiagoa–. Ikasketetan erabiltzen den hizkuntza da euskara jakitearekin –edo ez jakitearekin– lotura handiena daukana; gaitasun erlatiboaren kasuan, berriz, gurasoen hizkuntza nagusia da horrekin lotura handiena daukana.
- ▶ Aldagai soziodemografikoek hirugarren lekua betetzen dute bi hizkuntza-gaitasun motei dagokienez: adina eta jatorria aztertutako bi gaitasun motekin lotuta agertzen dira, baina sexu aldagaia ez.
- ▶ Jarrera eta iritziek ere harremana daukate aztertutako bi euskara-gaitasun motekin, baina oso pisu txikia.
- ▶ Ideologia eta nortasun politikoek ez dute harremanik euskararen hizkuntza-gaitasunarekin.

2.2. Familiako hizkuntza-ingurunearekiko harremana

Jakina denez, familia eta hezkuntza-sistema dira, gaur egun, euskararen transmisiorako eragile nagusietako bi—beharbada, eragile nagusiak—. Beraz, egokia da eragile transmititzaile horiek aipatutako hizkuntza-gaitasunarekin daukaten harremana zehatzago aztertzea, ikusteko zeintzuk diren, lehenik, elebitasun indibiduala eta, bigarrenik, elebitasun indibidual orekatua lortzea errazten edo zailtzen duten familiako eta hezkuntza-sistemako oinarrizko hizkuntza-baldintzak.

Helburu horrekin, hizkuntza-gaitasuna hainbat modu eta mailatan aztertuko dugu, aldagai dependente gisa, hasteko, familiaren hizkuntza-gaitasun motaren arabera.

- ▶ Lehenengo urratsean, hizkuntza guztietan komunak diren oinarrizko lau gaitasunak aztertuko ditugu: ulermena, ahozko adierazmena, irakurmena eta idazmena.
- ▶ Bigarren urratsean, aurreko atalean *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dutela diotenen euskarazko ahozko gaitasun erlatiboa (gaztelaniarekin alderatuta) aztertu, eta, horrela, lortutako elebitasun indibidual motan —orekatua edo ez— sakonduko dugu.

2.2.1. Oinarrizko hizkuntza-gaitasunen familiako transmisioa

Adierazi dugun bezala, urrats berri honetan, hizkuntza guztietan komunak diren oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak aztertuko ditugu: ulermena, ahozko adierazmena, irakurmena eta idazmena.

- ▶ **ULERMENA:** Bi gurasoen hizkuntza nagusia¹⁰ euskara bada, hizkuntza hori ongi edo nahiko ongi ulertzen dutenen portzentaje metatuak handiagoak dira (% 93,5) hizkuntza nagusirik ez baldin badago baino (% 67,3), baita hizkuntza nagusia gaztelania (edo beste hizkuntza bat¹¹) bada baino (% 30,7).

¹⁰ Galderan erabili dugun *hizkuntza nagusi* kontzeptu horrek bi hizkuntza edo gehiago elkarrekin bizi diren egoeretan beste hizkuntza bat ezagutzea eta erabiltzea ere barne har dezake; hots, gurasoek hizkuntza nagusi bat edukitzeak ez du baztertzen besterik ezagutzea eta seme-alabekin erabiltzea. Beraz, familiako kideen arteko transmisio-baldintzak aztertzeko, kontzeptu anbigua da.

¹¹ Hemendik aurrera, bi gurasoen hizkuntza-gaitasunaz ari garenean, gaztelania hizkuntza nagusi gisa aipatzen dugunean euskara ez diren beste hizkuntza batzuk ere barne hartuko ditugu kategoria horretan.

(Lagin osoa = 1.806 kasu)		GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA			Guztira
		Euskara nagusi	Hizkuntza nagusirik ez	Gaztelania edo beste bat nagusi	
NOLA ULERTZEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT, BATERE EZ?	Ongi	% 79,1	% 46,8	% 15,0	% 28,9
	Nahiko ongi	% 14,4	% 20,5	% 15,7	% 16,0
	Zertxobait	% 5,5	% 22,0	% 40,1	% 32,4
	Batere ez	% 1,0	% 10,7	% 29,1	% 22,5
	Ed-Ee			% 0,2	% 0,1
Guztira		% 100,0 n=292	% 100,0 n=205	% 100,0 n=1.310	% 100,0 n=1.806

- MINTZAMENA:** Era berean, bi gurasoen hizkuntza nagusia euskara baldin bada, hizkuntza hori ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenen portzentaje metatua (% 91,8) hizkuntza nagusirik ez baldin badago baino handiagoa da (% 58,0), baita hizkuntza nagusia gaztelania bada baino handiagoa ere (% 21,5), eta ahozko gaitasunari dagozkion balio horiek beti ulermenean lortutakoak baino txikiagoak dira.

Gurasoen hizkuntza nagusia gaztelania den kasuan, euskaraz behar besteko ahozko gaitasuna izatera iristen ez diren seme-alaben kopurua % 78,6koa da. Baina, agian, azpimarragarriena da hizkuntza nagusirik ez duten gurasoen seme-alaben % 42,0 ere ez direla iristen maila horretara.

(Lagin osoa = 1.806 kasu)		GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA			Guztira
		Euskara nagusi	Hizkuntza nagusirik ez	Gaztelania edo beste bat nagusi	
NOLA HITZ EGITEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT EDO BATERE EZ?	Ongi	% 76,4	% 43,9	% 12,8	% 26,6
	Nahiko ongi	% 15,4	% 14,1	% 8,7	% 10,4
	Zertxobait	% 5,1	% 16,1	% 28,9	% 23,6
	Batere ez	% 3,1	% 25,9	% 49,7	% 39,4
	Ed-Ee		% 0,0		% 0,0
Guztira		% 100,0 n=292	% 100,0 n=205	% 100,0 n=1.310	% 100,0 n=1.806

- **IRAKURMENA:** Dagoeneko ulermenaren eta ahozko adierazmenaren kasuan adierazi dugun joeraren antzekoa gertatzen da; izan ere, bi gurasoen hizkuntza nagusia euskara baldin bada, hizkuntza horretan ongi edo nahiko ongi irakurtzen dutenen portzentaje metatuak (% 75,7) handiagoak dira hizkuntza nagusirik ez baldin badago baino (% 59,1), baita hizkuntza nagusia gaztelania bada baino (% 29,1).

Orain, berritasuna zera da, gurasoek hizkuntza nagusirik ez baldin badaukate edo hizkuntza nagusia gaztelania bada, euskaraz ongi edo nahiko ongi irakurtzen dakitela diotenen proportzioak handiagoak direla aurretik ulertu eta hitz egin gaitasunetarako jasotakoak baino.

(Lagin osoa = 1.806 kasu)		GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA			Guztira
		Euskara nagusi	Hizkuntza nagusirik ez	Gaztelania edo beste bat nagusi	
ETA IRAKURRI: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT EDO BATERE EZ?	Ongi	% 56,5	% 45,9	% 17,5	% 27,0
	Nahiko ongi	% 19,2	% 13,2	% 11,6	% 13,0
	Zertxobait	% 19,2	% 17,6	% 20,2	% 19,7
	Batere ez	% 5,1	% 23,4	% 50,8	% 40,3
	Ed-Ee		% 0,0		% 0,0
Guztira		% 100,0 n=292	% 100,0 n=205	% 100,0 n=1.310	% 100,0 n=1.806

- **IDAZMENA:** Idazmenari dagokionez, irakurmenaren kasuan deskribatutako joera errepikatzen da; hau da, bi gurasoen hizkuntza nagusia euskara baldin bada, portzentaje metatuak ere (ongi edo nahiko ongi idazten dute) handiagoak dira (% 66,4) hizkuntza nagusirik ez badute baino (% 54,6), baita hizkuntza nagusia gaztelania bada baino (% 24,4).

Era berean, bi gurasoek hizkuntza nagusirik ez baldin badaukate edo hizkuntza nagusia gaztelania baldin bada, gehiago dira euskaraz idazteko behar besteko gaitasuna lortzen dutenak familia-baldintza berberetan ulertzeko edo hitz egiteko behar besteko maila lortzen dutenak baino.

- **GAZTELANIAZ IKASI BALDIN BADUTE:** Orain arte gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin gurutzatuz egindako euskara-gaitasun azterketak ikasketetan erabili duten hizkuntza-ereduak hizkuntza-gaitasunean izan duen eraginaren baldintzapean daude.

(Lagin osoa = 1.806 kasu)		GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA			Guztira
		Euskara nagusi	Hizkuntza nagusirik ez	Gaztelania edo beste bat nagusi	
ETA IDAZTEARI DAGOKIONEZ, NOLA IDAZTEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT EDO BATERE EZ?	Ongi	% 50,3	% 43,4	% 14,6	% 23,6
	Nahiko ongi	% 16,1	% 11,2	% 9,8	% 11,0
	Zertxobait	% 21,9	% 14,1	% 18,9	% 18,8
	Batere ez	% 11,3	% 30,2	% 56,7	% 46,4
	Ed-Ee	% 0,3	% 1,0	% 0,1	% 0,2
Guztira		% 100,0 n=292	% 100,0 n=205	% 100,0 n=1.310	% 100,0 n=1.806

Eragin hori neutralizatzeko asmoz, hurrengo urratsean, lehen mailako ikasketak gaztelaniaz¹² egin dituzten pertsona inkestatuak bakarrik barne hartu ditugu, horrek hizkuntza-gaitasunak –analisi hau ahozko trebetasunera mugatuz– familia motarekin duen harremana garbiago ikusten lagunduko baitigu.

Gainera, gurasoen hizkuntza-nagusitasunaren arabera lortutako ahozko gaitasunari buruzko datuak alderatzea interesgarria da, dagoeneko landu ditugun bi kasuetan; hau da, lehen mailako ikasketak gaztelaniaz egin dituztenen kasuan eta edozer hizkuntza-eredutan egin dituztenen, hots, lagin osoaren kasuan.


Grafikoan, joera nagusia antzekoa dela ikusten da, dela lagin osoaren kasuan (ikasketetako hizkuntza-eredua kontuan hartu gabe) dela lehen mailako ikasketak gaztelania hutsez egin dituztenen kasuan.

Hala ere, espero zitekeen bezala, familia mota berbera izanik, euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenen kopurua beti handiagoa da hizkuntza-eredu guztiak barne hartzen direnean gaztelaniaz ikasi dutenak bakarrik kontuan hartzen direnean baino:

- Gurasoen hizkuntza nagusia euskara denean, hizkuntza horretan ahozko gaitasun nahikoa izateari dagokionez, edozer hizkuntza-eredutan ikasi dutenen (% 92) eta gaztelaniaz egin dutenen (% 87) arteko aldea murrizta da: 5 puntukoa.

¹² Lehen mailako ikasketak gaztelaniaz egin dituztenak 1.369 kasu dira, 1.806 inkestako kopuru osotik.

3. grafikoa. Gurasoen nagusitasun linguistikoaren arabera lortutako ahozko gaitasuna, lehen mailako ikasketak edozein eredu linguistikoetan edo gaztelaniazko ereduak egin dituztenentzat (%)



- Baina hizkuntza nagusi argirik ez baldin badago, kasu batean eta bestean euskarazko ahozko gaitasun nahikoa lortzen dutenen arteko aldea dezente handiagoa da: lagin osoa kontuan hartuta, euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenak % 58 dira; gaztelaniaz ikasi dutenen kasuan, berriz, % 31. Beraz, aldea 27 puntukoa da.

Hizkuntza nagusia gaztelania duten gurasoen seme-alaben artean joera errepikatzen da –baina aldea pixka bat txikiagoa da–: kasu horietan dauden % 22k esaten du ongi edo nahiko ongi hitz egiten duela euskaraz; gaztelaniaz ikasi dutenen artean, berriz, % 11k. Hau da, bi kasuen arteko aldea 11 puntukoa da. Dena den, kasu honen alderik azpimarragarriena da, hain zuzen, % 11k euskaraz ahozko nahikoa gaitasun daukala; segur aski, helduak direla ikasten aritzeari esker.

2.2.2. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOAREN FAMILIAKO TRANSMISIOA

Gizarte elebidun edo eleanitzetan, hizkuntza-gaitasunaren alderdi bereziki garrantzitsuetako bat gizarte horretan nagusi den elebidun indibidual motari dagokiona da; hau da, pertsona elebidunek elkarrekin bizi diren hizkuntzetako batean gaitasun handiagoa edukitzea edo, aitzitik, guztietan gaitasun maila orekatua edo antzekoa edukitzea.


Aurretik aipatu dugun bezala, elementu horren garrantzia honetan datza: harremanetan dauden bi hizkuntzetan antzeko gaitasuna edukiz gero bakarrik egongo da baldintza indibidual egoki bat –sozialki, beste baldintza batzuek esku hartzen dute– pertsonak hobesten duten hizkuntzaren aldeko hautu askea egin ahal izateko. Horregatik, jarraian, ahozko trebeziara bakarrik mugatuta, euskara-gaitasuna¹³ dutenen elebitasun indibidual motak gehien bat zer familia motarekin –hizkuntza-ereduaren arabera– lotzen diren aztertuko dugu.

Gurasoen hizkuntza nagusiak ondorengoek lortutako elebitasun motan daukan eragina berdina da hezkuntzako hizkuntza-eredu guztiak aldi berean kontuan hartuta eta ikasketak gaztelania hutsez egin dituztenak bakarrik kontuan hartuta:

- ▶ Gurasoen hizkuntza nagusia euskara denean, elebidun guztien % 55ek esaten dute euskaraz gaztelaniaz baino hobeto hitz egiten dutela; gaztelaniaz ikasi dutenen artean, berriz, elebitasun hori, nahiz eta nagusi izan, % 42ra jaisten da: aldea 13 puntukoa da.
- ▶ Gurasoek hizkuntza nagusirik ez dutenean, elebitasun orekatua gehiengoa da (erraztasun maila bera bi hizkuntzetan) hizkuntza-eredu guztietan (% 44), baina ez gaztelaniaz ikasi dutenen artean. Kasu horretan, elebitasun mota zabalduena gaztelania nagusi duena da (% 61).
- ▶ Elebidunen arteko gaztelaniaren nagusitasuna handiagoa da hizkuntza hori bera nagusi duten gurasoen seme-alaben artean, ikasketetako hizkuntza-eredua edozein izanda ere (% 76), eta are handiagoa, horien artean, gaztelaniaz ikasi dutenen artean (% 83).

¹³ Euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutela dioten pertsonak 669 dira, 1.806 inkestako lagin osotik.

4. grafikoa. Gurasoen nagusitasun linguistikoaren arabera lortutako ahozko gaitasun erlatiboa, lehen mailako ikasketak edozein eredu linguistikoetan edo gaztelaniazko ereduak egin dituztenentzat (%)



2.2.3. FAMILIAREN ETA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARTEKO HARREMANAREN LABURPENA

Laburbilduz, gurasoen hizkuntza nagusia oso lotuta dago haien seme-alaben euskarazko hizkuntza-gaitasunekin, bai aktiboekin (hitz egitea eta idaztea) bai pasiboekin (ulertzea eta irakurtzea):

- Gurasoek hizkuntza nagusi argirik ez daukaten seme-alaben kasuan, euskara hizkuntza nagusi duten familietakoak baino gaitasun estandar murriztagoetara iristen dira –lau trebetasunetan–.
- Euskara hizkuntza nagusi duten gurasoen seme-alaben kasuan, ondorengo gehienek hizkuntza horretan gaitasun nahikoa lortzea ziurtatuta dago, baita lehen mailako ikasketen hizkuntza-eredua gaztelania dutenen artean ere.

- ▶ Euskara hizkuntza nagusi duten gurasoen seme-alabak ulermen eta mintzamen gaitasun maila handira iristen dira, baina irakurmen eta idazmen datuak ez dira balio beretara iristen. Hau da, aztertutako lau gaitasunetatik, irakurmena eta idazmena familiako transmisioetik erlatiboki autonomoagoak dira.
- ▶ Gaztelania hizkuntza nagusi duten gurasoen seme-alaben kasuan, euskaraz lau gaitasunetan lortzen dituzten mailak apalak dira eta erlatiboki berdinduta daude; emaitza baxuenak elebidun izatera iristeko behar adinako ahozko gaitasunari dagozkionak dira.
- ▶ Euskara gurasoen hizkuntza nagusia denean, hizkuntza-ereduak aipatutako hizkuntzan ahozko nahikotasuna bermatzeko duen eragina txikiagoa da hizkuntza nagusirik ez dagoen edo hizkuntza nagusia gaztelania den kasuetan baino.

Beste modu batera esateko, nahiz eta ikasketetako hizkuntza-eredua gaztelania izan, gurasoen hizkuntza nagusia euskara baldin bada, horrek eragile oso eraginkor moduan jokatzen du hizkuntzaren transmisioan; hainbeste, non nahikoa den euskarazko gaitasuna emateko, edozer eredutan ikasten dutenen ia kasu kopuru berean. Aldiz, familiako hizkuntza nagusia euskara ez bada, gaztelaniazkoa ez den beste hizkuntza-eredu bat izateak, kasu batzuetan, euskararen behar adinako transmisioa emateko balio dezake.

Lortutako elebitasun motari dagokionez –orekatua edo desorekatua, hizkuntza baten edo bestearen alde–, gurasoen hizkuntza-nagusitasuna ondorengo zuzenen elebitasun erlatiboarekin garbi lotuta dago –euskarazko ahozko gaitasuna, gaztelaniaz lortutakoarekin alderatuta– eta harreman hori ikasketetako hizkuntza-eredua edozer dela ere adierazten da:

- ▶ Hizkuntzaren araberako hiru familia motetatik bakar batek ere ez du eragiten seme-alaben gehiengoak elebitasun orekatua izatea, baina euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-oreka indibiduala gertaerazagoa da hizkuntzarik nagusitzen ez den familia-inguruneetan. Hala ere, ikasketako hizkuntza-eredua kontuan hartzen ez bada bakarrik gertatzen da (lagin osoari dagokionez); hau da, pertsona horietako batzuek hezkuntza-sistemaren bitartez euskararen ikasketa indartzen dutenean.
- ▶ Gaztelania hizkuntza nagusi duten gurasoak bakarrik hartzen baldin badira kontuan, hizkuntza horren eragina erabakigarriagoa da; izan ere, ikasketetako hizkuntza-eredua edozein dela ere, gaztelania da, alde handiagatik, seme-alaba elebidunengan nagusitzen den hizkuntza.
- ▶ Gaztelaniaz ikasi dutenak bakarrik kontuan hartuta eta, zehazki, hizkuntza nagusi argi bat ez daukaten edo hizkuntza nagusia gaztelania duten gurasoen seme-alabak, pertsona horiek elebidun izatera iristen diren kasu apurretan, ez dira elebidun orekatuak izaten, ezta hurrik eman ere; gehienek gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiagoa erakusten dute. Hala ere, kasu horren alderdi azpimarragarriena da, hain zuzen, % 11k (lagin osoaren % 6,3) ahozko gaitasun nahikoa daukala, nahiz eta gaztelania nagusi den familia batekoa izan eta ikasketak hizkuntza horretan egin; emaitza hori, segur aski, helduentzako ikastaroen bitartez euskara bigarren hizkuntza gisa (L2) ikastearen ondorio izango da.

2.3. Ikasketetako hizkuntza-ingurunearekiko harremana

Behin eta berriz aipatu dugu hezkuntza-sistemak euskararen transmisioan daukan garrantzia. Horregatik, jarraian, sistema horrek eta, zehatzago, sistema horretako hizkuntza-ereduek lau hizkuntza-gaitasunekin (ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmena) daukaten harremana zehatz-mehatz aztertuko dugu, eta, horrez gain, ahozko gaitasun erlatiboarekin daukatena, aurreko kapituluetan familiarekin egin dugun bezala.

2.3.1. OINARRIZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAK HEZKUNTZA-SISTEMAREN BITARTEZ TRANSMITITZEA

Hasieran, analisia lagin osoarekin egin dugu, hau da, familiako euskararen transmisio maila kontuan hartu gabe, eta, ondoren, familiaren aldagai hori neutralizatuta jarraitu dugu analisiarekin.

- **ULERMENA:** Lehen mailako ikasketak, OHO edo DBHkoak, euskaraz egin dituztenen artean, ulermenaren gaitasun pasiboa –hau da, hizkuntza hori ongi edo nahiko ongi ulertzen dutenen kopurua– askoz ere zabalduago dago (% 98,0) euskaraz eta gaztelaniaz maila berean ikasi dutenen (% 82,6) eta, batez ere, gaztelaniaz (edo beste hizkuntza batean) egin dutenen artean baino (% 32,3).

(Oinarrizko ikasketen informazioa eman dutenen 1.739 kasuentzat bakarrik)		ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN ZENITUEN OINARRIZKO IKASKETAK, OHO EDO DBHkoak?			Guztira
		Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean	
NOLA ULERTZEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT, BATERE EZ?	Ongi	% 74,7	% 53,8	% 17,9	% 29,0
	Nahiko ongi	% 23,3	% 28,8	% 14,4	% 16,6
	Zertxobait	% 1,4	% 16,3	% 40,3	% 32,7
	Batere ez	% 0,7	% 1,3	% 27,2	% 21,6
	Ed-Ee			% 0,1	% 0,1
Guztira		% 100,0 n=288	% 100,0 n=80	% 100,0 n=1.371	% 100,0 n=1.739

- MINTZAMENA:** Era berean, euskaraz ikasi dutenen artean, hizkuntza hori ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenen portzentajea (% 97,6) handiagoa da euskaraz eta gaztelaniaz maila berean ikasi dutenen artean (% 72,6) eta gaztelaniaz ikasi dutenen artean baino (% 22,5), eta balio horiek beti ulermenean lortutakoak baino txikiagoak dira.

Azpimarratu behar dugu euskaraz hitz egiteko behar adinako gaitasunik ez daukatela diotenen kopurua handia dela euskaraz eta gaztelaniaz ikasi dutenen artean (% 27,6), eta lehen mailako ikasketak gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egin dituztenen kasuan, hiru laurdenetik gorakoa dela (% 77,5).

(Oinarrizko ikasketen informazioa eman dutenen 1.739 kasuentzat bakarrik)		ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN ZENITUEN OINARRIZKO IKASKETAK, OHO EDO DBHkoak?			Guztira
		Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean	
NOLA HITZ EGITEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT EDO BATERE EZ?	Ongi	% 79,2	% 53,8	% 14,0	% 26,7
	Nahiko ongi	% 18,4	% 18,8	% 8,5	% 10,6
	Zertxobait	% 1,4	% 18,8	% 28,9	% 23,8
	Batere ez	% 1,0	% 8,8	% 48,6	% 38,9
	Ed-Ee			% 0,0	% 0,0
Guztira		% 100,0 n=288	% 100,0 n=80	% 100,0 n=1.371	% 100,0 n=1.739

- IRAKURMENA:** Lehen mailako ikasketak euskaraz egin dituztenen artean, hizkuntza horretan ongi edo nahiko ongi irakurtzen dutenen ehunekoa handiagoa da (% 97,3) euskaraz eta gaztelaniaz batera ikasi dutenen artean baino (% 78,8), baita gaztelaniaz ikasi dutenen artean baino (% 26,4).

Euskaraz ikasi dutenen kasuan izan ezik, beste bi kasuetan (euskaraz eta gaztelaniaz batera ikasi dute edo gaztelaniaz bakarrik), euskaraz ongi edo nahiko ongi irakurtzen dutela diotenen ehunekoa handiagoa da aurretik ulermen eta mintzamenari zegokienez jasotakoa baino.

(Oinarrizko ikasketen informazioa eman dutenen 1.739 kasuentzat bakarrik)		ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN ZENITUEN OINARRIZKO IKASKETAK, OHO EDO DBHkoak?			Guztira
		Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean	
ETA IRAKURRI: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT EDO BATERE EZ?	Ongi	% 79,9	% 52,5	% 15,0	% 27,4
	Nahiko ongi	% 17,4	% 26,3	% 11,4	% 13,1
	Zertxobait	% 2,1	% 13,8	% 24,5	% 20,3
	Batere ez	% 0,7	% 7,5	% 49,1	% 39,2
	Ed-Ee			% 0,0	% 0,0
Guztira		% 100,0 n=288	% 100,0 n=80	% 100,0 n=1.371	% 100,0 n=1.739

- IDAZMENA:** Euskaraz idazteko gaitasunari dagokionez, irakurtzeko gaitasunaren kasuan deskribatutakoaren antzeko joera dago. Lehen mailako ikasketak euskaraz egin dituztenen artean, hizkuntza horretan ongi edo nahiko ongi idazten dutenen ehuneko handiagoa da (% 95,5) hizkuntza nagusirik ez dutenen artean baino (% 80,1), baita gaztelania hizkuntza nagusi dutenen artean baino (% 20,4).

Kasu horretan ere, euskaraz eta gaztelaniaz batera ikasi dutenen edo gaztelaniaz ikasi dutenen artean, euskaraz ongi edo nahiko ongi idazten dutela diotenen ehuneko handiagoa da aurretik ulermenari edo mintzamenari zegokienez bildutakoak baino.

Adierazitako datuen beste irakurketa bat eginez, orain ikasketetako hizkuntza-ereduaren arabera, aipatu gabeko beste alderdi batzuk nabarmendu daitezke, familiako hizkuntzaren arabera inolako bereizketarik egiten ez dela kontuan hartuta:

Ikasketak euskaraz egin dituztenen kolektiboan, ulertu, hitz egin, irakurri eta idazteko gaitasunen ehunekoak handiak dira; izan ere, % 98ko (ulermena) eta % 95,5eko (idazmena) muturreko balioen artean baitaude, eta hitz egiteari eta irakurtzeari dagozkien ehunekoak bi kopuru horien artean daude. Hau da, kolektibo ia osoak lau gaitasunak dauzka.

Euskaraz eta gaztelaniaz, maila berean, ikasi dutenek % 82,6 (ulermena) eta % 72,6 (mintzamina) arteko ehunekoak lortu dituzte.

Lehen mailako ikasketak gaztelaniaz (edo euskara ez den beste hizkuntza batean) egin dituzten pertsonen ehuneko baxuak dauzkate lau gaitasunetan: % 32,2tik hasita (ulermena) % 20,4ra (idazmena).

(Oinarrizko ikasketen informazioa eman dutenen 1.739 kasuentzat bakarrik)		ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN ZENITUEN OINARRIZKO IKASKETAK, OHO EDO DBHkoak?			Guztira
		Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean	
ETA IDAZTEARI DAGOKIONEZ, NOLA IDAZTEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT EDO BATERE EZ?	Ongi	% 77,4	% 51,3	% 11,5	% 24,3
	Nahiko ongi	% 18,1	% 28,8	% 8,9	% 11,3
	Zertxobait	% 3,1	% 7,5	% 22,7	% 18,7
	Batere ez	% 1,4	% 12,5	% 56,7	% 45,5
	Ed-Ee			% 0,2	% 0,2
Guztira		% 100,0 n=288	% 100,0 n=80	% 100,0 n=1.371	% 100,0 n=1.739


- GAZTELANIA, GURASOEN HIZKUNTZA NAGUSI GISA:** Orain arte, hezkuntza-ingurunearen eraginari buruzko analisiak aztertutako bi aldagai independenteen arteko (gurasoen hizkuntza nagusia eta lehen mailako ikasketetako hizkuntza-eredua) loturak bereizi gabe egin dira.

Horregatik, orain hezkuntza-sistemak emandako mintzamen gaitasuna berriz aztertuko dugu (ulermen, irakurmen eta idazmenekoak alde batera utziko ditugu), kasu guztiak gurasoen hizkuntza nagusia gaztelania den kasuekin alderatuta.

Efektibo guztiak gurasoen hizkuntza nagusia gaztelania den (edo zen) kasuei dagozkenez, gehien-gehientsuenek euskara bigarren hizkuntza gisa bereganatuko zuten (L2), baina ez beti hezkuntza-sistemaren bitartez, baita helduen ikaskuntzaren bitartez ere:

- Ikasketak euskaraz egin dituztenen kasuan, familiako hizkuntza nagusia bat edo beste izan, % 98k diote ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutela euskaraz; aldiz, gaztelania familiako hizkuntza nagusi dutenen artean, % 95ek. Beraz, hiru puntuko aldea besterik ez dago bi kasuen artean.
- Hiru puntuko alde hori bera agertzen da ikasketak gaztelaniaz eta euskaraz egin dituztenen artean: familia guztiak kontuan hartuta, euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai direla diotenak % 73 dira; gurasoen hizkuntza nagusia gaztelania duten seme-alaben kasuan, berriz, % 70.
- Hizkuntzaren araberako familia motarekin –gurasoen hizkuntza nagusia bata edo bestea izatea– lotutako aldea 12 puntukoa izatera igotzen da gaztelaniaz (edo euskara ez den beste hizkuntza batean) ikasi dutenen artean, familia guztien (% 23) eta gaztelania nagusi dutenen kasuetan (% 11).

5. grafikoa. Lehen mailako ikasketetako hizkuntza ereduaren arabera lortutako ahozko gaitasuna, edozein motatako familien kasuan eta gaztelania hizkuntza nagusi gisa dutenen kasuan (%)




2.3.2. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA HEZKUNTZA-SISTEMAREN BITARTEZ TRANSMITITZEA

Ahozko trebetasun erlatiboaren analisiari berriz helduz, jarraian, ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutela diotenek eskuratutako elebitasun individual mota aztertuko dugu, lehen mailako ikasketetako hizkuntza-ereduaren argitan –orain arte bezala–.¹⁴ Hala, hizkuntza-ereduak lortutako elebitasun mailarekin alderatuta, zera ikusten dugu:

¹⁴ *Euskaraz eta gaztelaniaz, maila berean* kategoriari buruzko datuak kontu handiz irakurri behar ditugu, jasotako efektiboak gutxi direlako: familia multzo osotik 59 kasu dira, eta, horietatik, hizkuntza nagusi gisa gaztelania daukaten gurasoen seme-alabak, 35 bakarrik. Horregatik, datu horiek ez ditugu hemen komentatuko.

6. grafikoa. Ikasketetako hizkuntza ereduaren arabera lortutako ahozko gaitasun erlatiboa, edozein motatako gurasoak dituztenen eta gurasoek gaztelania hizkuntza nagusi gisa dutenen kasuetan (%)



- Elebitasun motan dagoen aldeak gurasoen hizkuntza nagusiarekin lotura handiagoa dauka ikasketetako hizkuntza-ereduarekin baino: Familia guztiak kontuan hartuta, euskara kasuen % 30 eta % 22 artean da nagusi; gaztelania hizkuntza nagusi duten familiak bakarrik kontuan hartuta, berriz, emaitzak % 6 eta % 2 artekoak dira. Familia motaren araberako alde hori, 20 eta 24 puntu bitartekoa, familia mota berean hizkuntza-ereduen arabera sortzen dena baino askoz ere handiagoa da.
- Bai familia guztiak bai gurasoen hizkuntza nagusi gisa gaztelania duten familiak kontuan hartuta, hiru hizkuntza-ereduetatik bakar batek ere ez dio ikasleengehiangoari euskaraz eta gaztelaniaz modu orekatuan hitz egiteko gaitasunik ematen.
- Kasu guztietan, gaztelaniaz erraztasun handiagoz hitz egiten dutenak nagusitzen dira; hau da, euskaraz ikasi dutenen artean ere gertatzen da (% 38), gurasoen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe, nahiz eta ez dagoen alde handirik bi hizkuntzetarako antzeko erraztasuna bereganatzeari dagokionez (% 32) edo euskaraz gaitasun handiagoa lortzeari dagokionez (% 30).

- ▶ Gaztelaniaren aldeko elebitasun desorekatu hori handitu egiten da, batez ere, gaztelania hizkuntza nagusi gisa duten familietan. Hala, % 66koa da euskaraz ikasi dutenen artean eta % 83koa gaztelaniaz egin dutenen artean.

2.3.3. HEZKUNTZA-SISTEMAREN ETA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARTEKO HARREMANAREN LABURPENA

Lagin osoa kontuan hartuz gero, lehen mailako ikasketen, OHOkoen eta DBHkoen hizkuntzak oso lotuta daude bai hizkuntza-gaitasun aktiboekin (mintzamina eta idazmina) bai pasiboekin (ulermena eta irakurmena):

- ▶ Lehen mailako ikasketak euskaraz egin dituzten pertsona gehienek –baina ez guztiak– diote hizkuntza hori ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko behar besteko gaitasuna daukatela, nahiz eta familiako kideen arteko hizkuntza euskara ez beste bat izan. Horrek erakusten du hezkuntza-sistemak hizkuntza murgiltze-eredu horren bitartez transmititzeko ahalmena daukala.
- ▶ Ikasketak euskaraz eta gaztelaniaz, maila berean, egin dituztenen artean, hamarretik zortzi (ulermena) eta hamarretik zazpi (mintzamina) bitarteko behar besteko hizkuntza-gaitasun ehunekoak lortu dituzte; hau da, kasu askotan, eredu elebidunak ez du bermatzen euskara trebetasunen behar adinako transmisioa, are gutxiago kontuan hartuta pertsona horietako batzuen familiako hizkuntza euskara izango zela.
- ▶ Euskaraz ikasi dutenak alde batera utzita, beste bi ereduetan (elebiduna eta gaztelaniazkoa) irakurmen-idazmen arloan behar besteko gaitasunak zabalduago daude mintzamenekoak edo ulermenekoak baino. Hau da, badirudi bi eredu horiek hizkuntzaren erabilera formalagoa edo teknikoagoa bereganatzeko egokiagoak direla egoera komunikatibo ohikoagoetan moldatzeko baino.

Gurasoek gaztelania hizkuntza nagusi duten kasuak bakarrik aztertzen ditugunean, garbi ikusten da hizkuntza-ereduek elebitasun orekatua bermatzeko ahalmen murrizta daukatela¹⁵ –eta, logikoki, are txikiagoa euskararen alde– familia inguruneak ere ez badu hizkuntza horren transmisioan laguntzen. Hau da, familiak elebidunen gaitasun erlatiboaren mailan daukan eraginaren kasuan ez bezala, ez dirudi hizkuntza-ereduak, bere

¹⁵ Adibidez, pertsona elebidunen kasuan, frogatu denez, erraztasun handienaz hitz egiten duten hizkuntzak eta ikasketetako hizkuntza-ereduak ez daukate lotura argirik, ezta estatistikoki esanguratsurik ere, ez lagin osorako, ezta gurasoek hizkuntza nagusia gaztelania duten seme-alaben kasuan ere.

kabuz, sistema horretan ikasten duten gehienei elebitasun orekatua emateko ahalmena daukanik, familia-ingurunean indartzen ez bada. Hala, euskarazko murgiltze ereduan ikasteaz gain familia barruan hizkuntza horren nolabaiteko transmisioa ere gertatzen denean lortzen da, neurri handiago batean, elebitasun orekatura iristea.

3. Euskararen erabilera

Transmisioa hizkuntza batek bizirik iraun dezan *sine qua non* baldintza den arren, ez da nahikoa hizkuntza horrek baldintza duinetan iraun dezan. Hizkuntza bizien funtsezko gakoa erabilera da.

Horregatik, euskara erabiltzea errazten edo laguntzen duten elementuak ere aztertu behar dira, txosten honen abiapuntua den inkestak emandako informazioa erabiliz. Kontuan hartuz hizkuntza ez dela modu abstraktuan erabiltzen –aurretik adierazitako ideia–, egoera eta hizlari oso konkretuetara lotuta baizik, hiru erabilera-ingurune aztertuko ditugu: familia, lana edo ikasketak eta lagunak.

Berriz ere 16 aldagai independente edo iragarle sartu ditugu analisisan, baina oraingoan 6 bloketan banatuta; izan ere, horien osaketan eta banaketan aldaketa bat gertatu da. Hauek dira aldeak:

- a. Euskarazko ahozko gaitasunari zegokion aurreko aldagai dependentearen ordez hizkuntza horren aipatutako hiru inguruneetako erabilera barne hartzea: *Familiarekin hitz egiteko erabili ohi duen hizkuntza, Lanean edo ikasketetan hitz egiteko erabili ohi duen hizkuntza eta Lagunekin hitz egiteko erabili ohi duen hizkuntza*.
- b. Bloke berri bat sortzea: *hizkuntza-gaitasuna*, aldagai bakarraz osatua ¹⁶: *Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?*

Hiru ingurune horietan, erabilera maila ondorengo kategorien bitartez jaso da: *beti euskaraz / euskaraz gaztelaniaz baino gehiago / euskaraz gaztelaniaz bezainbeste / gaztelaniaz euskaraz baino gehiago / beti gaztelaniaz*¹⁷.

¹⁶ Aurretiazko zenbait azterketa egin genituen, ereduan hizkuntza-gaitasuneko beste aldagai aktiboa sartuta (*Nola idazten duzu euskaraz: Ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?*), baina ez zuen erabilera hobeto azaltzen –ezta lanekoa edo ikasketetako ere–; beraz, azterketa horietatik kendu egin genuen.

¹⁷ *Nagusiki beste hizkuntza batean aukeran sartzen ziren kasuak gutxi zirenez, Beti gaztelaniaz kategoriaren barruan sartu dugu aldagai anitzeko analisisan.*

3.1. Euskararen erabilera, familiako kideen artean

Askotan, familia hizkuntza gutxituen babeslekua izan da. Euskara ez da salbuespena, eta alor horri esker irau du bizirik hainbat hamarkadatan. Horregatik, lehenik eta behin, familiako kideen artean euskara erabiltzearekin lotutako aldagaiak zeintzuk diren aztertuko dugu.

Beste alde batetik, euskara EAeko hizkuntza koofizial gisa aitortzea, gaztelaniarekin batera, eta horri lotutako hizkuntza politika bat martxan jartzea joan den mendeko 80ko hamarkadako gertakariak izan ziren; beraz, oso interesgarria izan daiteke gazte jendearen arteko euskararen erabilera aztertzea, azken finean, aldaketa horien zuzeneko eraginpean egon den sektorea baita.

3.1.1. FAMILIAKO KIDEEN ARTEKO ERABILERA, BIZTANLERIA OROKORRAREN KASUAN


Euskararen familiako kideen arteko erabilerarekin lotutako elementuak aztertzean –Erregresio Kategorikoa edo CatReg izeneko aldagai anitzeko analisiaren bitartez– analisi estatistikoak sortu duen ereduak aldagai horren % 75,1 azaltzen du eta hori maila handiko azalpen estatistikotzat jo daiteke. Horrek esan nahi du, oro har, analisisan kontuan hartutako aldagaiak oso egokiak direla familiako kideen arteko euskararen erabilera neurtzeari dagokionez.

Lortutako emaitza nagusiek adierazten dutenez, aztertutako 16 aldagai independente edo iragarleetatik lau ez dira estatistikoki esanguratsuak aztertutako aldagaiari dagokionez. Zehazki, aldagai demografiko bat dago, *sexua*; trasmisioarekin lotutako aldagai bat, *ikastetxetik kanpo euskara klaseetara joatea*; eta ideologia eta nortasun politikoekin lotutako bi, *ezkerra/eskuina eskala* eta *abertzale* sentitzea edo ez.

Estatistikoki esanguratsuak diren aldagai independente edo iragarleak bakarrik kontuan hartuta, familiako kideen arteko euskararen erabilerarekin daukaten harremana honela banatzen da:

- ▶ Ahalmen esplikatiboaren ia erdia (% 44) testuinguru soziolinguistikoarekin lotutako aldagaiei dagokie, hau da, aztertutako beste ohiko bi euskara erabilera motei: lagunekin eta lanean edo ikasketetan.
- ▶ Heren bat (% 34) hizkuntzaren trasmisioko hiru aldagaietako bati dagokio: gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboari.
- ▶ Ahozko hizkuntza-gaitasunak (*Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?*) familiako kideen arteko erabileraren % 14 azaltzen du.

7. grafikoa. **Familian egiten den erabileraren gainean aldagai independenteek duten azalpen-ahalmena (%)**



- ▶ *Adina* eta *jatorria* aldagai soziodemografikoek familiako kideen arteko euskararen erabileraren % 5 azaltzen dute.
- ▶ Euskararen inguruko jarrerak/iritziek % 3 azaltzen dute, ahalmen hori bereziki ondorengo baieztapenean jasoz: *Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko.*

Ondoko taulan, 16 aldagaietako bakoitzak euskara-gaitasuna azaltzeko egiten duen ekarpena agertzen da, gai multzoka antolatuta, baita emaitza horien adierazgarritasun mailak ere.

FAMILIAN EUSKARAREN ERABILERAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIAK (15 urte edo gehiagoko biztanleria)	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 4,5	
Sexua	,000	,894
Adina	,028	,000
Jatorria	,017	,000
Gaitasun linguistikoaren aldagaia	% 14,2	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,142	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 44,2	
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,138	,000
Euskararen erabilera lagunekin	,304	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 3,4	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	,000	,000
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,003	,000
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,020	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,005	,000
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	,005	,000
Transmisioko aldagaiak	% 33,5	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	,004	,026
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	,351	,000
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarritzko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	-,016	,007
Ideologia eta identitate politikoaren aldagaiak	—	
Ezker/eskuin ardatza	-,003	,174
Euskal nazionalismoa	,001	,855


(*) Multzok osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

3.1.2. FAMILIAKO KIDEEN ARTEKO ERABILERA, GAZTEEN KASUAN

Euskal gazteriak¹⁸ ezberdintasun aipagarri batzuk dauzka biztanleria osorako dagoeneko komentatu ditugun datuekin alderatuz. Alde batetik, sortutako eredu estatistikoak familiako kideen arteko euskararen erabilera azaltzeko ahalmen handia izaten jarraitzen du, baina pixka bat txikiagoa (%73,9). Beste alde batetik, ereduari sartutako 16 aldagaietatik orain bederatzik besterik ez dira estatistikoki adierazgarriak –lagin osoaren kasuan (15 urte edo gehiago) hamabi ziren– familiako kideen arteko euskararen erabilera azaltzeko.

Orain, aldagai ez-adierazgarriak hauek dira: *sexua* eta *jatorria*, soziodemografikoei dagokienez; *ahozko hizkuntza-gaitasunaren* aldagaia; transmisioari dagozkion bi aldagai (*ikasketetako hizkuntza* eta *ikastetxetik kanpo euskara klaseetara joatea*); ideologia eta nortasun politikoeekin lotutako bi aldagaiak (*ezkerra/eskuina eskala* eta *abertzale sentitzea edo ez*).

8. grafikoa. **Familiako kideen arteko euskararen erabilera azaltzeko ahalmena, biztanleria helduaren eta gazteen kasuetan (%)**



¹⁸ Kolektibo horretan, erabili dugun EAEnko lagineko 15 urtetik 29ra bitarteko 435 pertsonak –bi adinak barne– sartuta.

FAMILIAN EUSKARAREN ERABILERAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIAK (15 eta 29 urte bitarteko gazteak)	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 2,3	
Sexua	,000	,966
Adina	,023	,000
Jatorria	,026	,015
Gaitasun linguistikoaren aldagaia	—	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,047	,015
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 33,3	
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,060	,003
Euskararen erabilera lagunekin	,273	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 8,4	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	-,005	,000
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,007	,004
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,037	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,026	,000
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	,019	,000
Transmisioko aldagaiak	% 50,1	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	,017	,048
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	,501	,000
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarrizko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	-,012	,284
Ideologia eta identitate politikoaren aldagaiak	—	
Ezker/eskuin ardatza	-,004	,284
Euskal nazionalismoa	,014	,190

(*) Multzok osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

Horren ondorioz, aldagai multzo bakoitzaren ekarpena ere nabarmen aldatzen da:

- ▶ Euskara transmititzen duten eragileek lotura askoz ere handiagoa daukate, pisu handieneko aldagai blokea bihurtzeraino (% 50); zehazki, *gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa* da ereduan ekarpena egiten duen aldagai bakarra.
- ▶ Testuinguru soziolinguistikoko aldagaiek (% 33) ekarpenean pixka bat atzera egiten dute. Horien artean, lagunekin erabili ohi den hizkuntza nabarmentzen da, ereduan pisu handiena daukatenetik bigarrena baita.
- ▶ Iritziko/Jarrerazko aldagaiek gora egiten dute familiako kideen arteko erabileran duten ekarpenari dagokionez, ereduaz azaltzeko %8ko ahalmena izateraino. *Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko* iritzia nabarmentzen da, eta, horren ondoren, *Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik.*
- ▶ Aldagai soziodemografikoen artean, *adina* da eredu estatistikoari ekarpen txiki bat (% 2) egiten dion bakarra.

3.1.3. FAMILIAKO KIDEEN ARTEKO ERABILERAREN LABURPENA

Ondorioz, elkarrizketatutako pertsonen familiako kideen arteko euskararen erabilerari dagokionez, zera esan daiteke:

- ▶ Hizkuntzaren transmisioko eragileetako bat da (*gurasoen hizkuntza-gaitasuna*) azalpen-ahalmen handiena duen aldagaia, batez ere gazteen artean.
- ▶ Familiako kideen arteko euskararen erabilerak harreman estua dauka hizkuntzaren erabileraren beste ingurune sozialekin ere: *lagunak* eta *lana* edo *ikasketak*, garrantzi ordena horretan.
- ▶ Jarrera eta iritziek ere harremana daukate familiako kideen arteko euskararen erabilerarekin, baina zama oso txikia, nahiz eta gazteen artean protagonismo pixka bat handiagoa hartu.
- ▶ Aldagai soziodemografikoek zama txikia daukate familiako kideen arteko euskararen erabilerari dagokionez; horien artean, *adinaren* aldagaia da ekarpen adierazgarriren bat egiten duena, bai biztanleria osoaren kasuan, bai gazteriaren kasuan, eta *jatorriak* bi laginetako lehenengoaren kasuan bakarrik. *Sexua* aldagaia ez da adierazgarria kasu bakar baterako ere.
- ▶ Ideologia eta nortasun politikoek ez dute batere harremanik adierazten familiako kideen arteko euskararen erabilerari dagokionez, ez lagin osoaren kasuan, ezta gazteriaren kasuan ere.

Gazteriak euskara erabiltzearen edo ez erabiltzearen kasuan, zenbait zirkunstantzia bat datoz. Elkarrekin lotuta daudela dirudi, eta entitate bereiziko ingurune soziolinguistikoaren parte izatea islatu ahalko lukete: a) *gurasoen gaitasuna*; b) *lagunekin erabili ohi den hizkuntzaren garrantzia*; c) iritzi/jarrerazko aldagaiak. Beste alde batetik, *euskaraz hitz egiteko gaitasunaren garrantzi faltak* kontrakoa adieraziko luke: gazte asko euskaraz gaituta daude, haien ingurune soziolinguistikoa edozein modutakoa izanda ere.


3.2. Euskararen laneko edo ikasketetako erabilera

Euskararen familiako kideen arteko erabilerarekin egin dugun bezala, euskararen laneko edo ikasketetako erabilera ere aztertuko dugu, bai biztanleria osoaren kasuan (15 urteko edo hortik gorako pertsonak), bai 15 urtetik 29ra bitarteko gazteen kasuan ere (bi adinak barne).

3.2.1. LANEKO EDO IKASKETETAKO ERABILERA, BIZTANLERIA OSOAREN KASUAN

Euskararen laneko edo ikasketetako erabilerarekin zerikusia daukaten elementuak aztertzeko analisi estatistikoaren bitartez sortu dugun ereduak azken aldagai honen

9. grafikoa. **Aldagai independenteek laneko edo ikasketetako euskararen erabilera azaltzeko duten ahalmena (%)**



% 66,6 azaltzen du. Kopuru hori familiako kideen arteko erabilera azaltzeko lortutakoa baino txikiagoa da, baina hau ere garrantzitsutzat jo daiteke.

Eredu honek ez dio adierazgarritasun estatistikorik ematen erabilera honetarako 16 aldagai independente edo azalpenezkoetatik zortziri: bi aldagai demografikoak dira (*sexua* eta *jatorria*); bi aldagai, transmisiokoak (*ikastetxetik kanpo eskola klaseetara joatea* eta *gurasoen hizkuntza-gaitasuna*); iritzi/jarrerazko bost aldagaietako bi; eta ideologia eta nortasun politikoko biak (*ezkerra/eskuina eskala* eta *euskal sentimendu nazionalista*).

LANTOKIAN EDO IKASKIDEEKIN EUSKARAREN ERABILERAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIK (15 urte edo gehiagoko biztanleria)	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 5,0	
Sexua	,012	,002
Adina	,050	,000
Jatorria	-,017	,027
Gaitasun linguistikoaren aldagaia:	% 35,9	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,359	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 49,7	
Euskararen erabilera familiarekin	,207	,000
Euskararen erabilera lagunekin	,290	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 1,4	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	,002	,006
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,001	,000
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,011	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,006	,010
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	-,001	,018
Transmisioko aldagaiak	% 10,7	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	-,001	,353
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	-,021	,014
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarritzko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,107	,007
Ideologia eta identitate politikoen aldagaiak	—	
Ezker/eskuin ardatza	-,003	,199
Euskal nazionalismoa	-,002	,670

(*) Multzoak osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.


Horrek adierazten du euskararen laneko edo ikasketetako erabilerak ez daukala zerikusirik ereduari sartutako aldagai askorekin, familiako kideen arteko erabileraren kasuan baino txikiagoa; hau da, orain euskararen erabilerarekin lotura argirik ez daukaten aldagai gehiago daude. Euskararen laneko edo ikasketetako erabilera azaltzen duten aldagai adierazgarriek honela banatzen dute beren azalpen-ahalmena:

- ▶ Erabileraren erdia (% 49) testuinguru soziolinguistikoko aldagaiak azaltzen dute; horien artean, *lagunen arteko erabilerak* garrantzi pixka bat handiagoa dauka *familiako kideen arteko erabilerak* baino.
- ▶ Herena baino gehiago (% 35) *euskarazko ahozko gaitasunak* azaltzen du.
- ▶ % 5 aldagai soziodemografikoei dagokie, nagusiki *adinari*.
- ▶ % 1 iritzizko edo jarrerazko aldagaiari dagokie.

3.2.2. LANEKO EDO IKASKETETAKO ERABILERA, GAZTEEN KASUAN

Gazteen laneko edo ikasketetako erabilera aztertze kontuan hartutako 16 aldagaietatik eratorritako eredu estatistikoak biztanleria osoaren kasuan bezalatsuko azalpen-ahalmena dauka (% 65,6).

10. grafikoa. Laneko edo ikasketetako euskararen erabilera azaltzeko ahalmena, biztanleria helduaren eta gazteen kasuetan (%)



Kasu honetan, bederatzia dira estatistikoki adierazgarriak ez direnak, baina ez dira baztertu biztanleria osoaren kasuan baztertutako berberak. Orain, ez-adierazgarrien multzo horretan lehen sartzen ez zen iritzizko aldagai bat sartu dugu (*euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat*).

LANTOKIAN EDO IKASKIDEEKIN EUSKARAREN ERABILERAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIK (15 eta 29 urte bitarteko gazteak)	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 10,4	
Sexua	,010	,126
Adina	,104	,000
Jatorria	-,019	,103
Gaitasun linguistikoaren aldagaia:	% 25,7	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,257	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 30,9	
Euskararen erabilera familiarekin	,092	,000
Euskararen erabilera lagunekin	,217	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 5,0	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	-,001	,449
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,003	,010
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,032	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,015	,026
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	,002	,222
Transmisioko aldagaiak	% 27,2	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	-,002	,819
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	-,013	,147
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarrizko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,272	,000
Ideologia eta identitate politikoaren aldagaiak	—	
Ezker/eskuin ardatza	,000	,988
Euskal nazionalismoa	,030	,088

(*) Multzoak osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

Era berean, aldagai blokeek estatistikoki sortutako azalpen-ereduan egiten duten ekarpena ere aldatu da:

- ▮ Azalpen-ahalmen handiena daukan blokea orain ere testuinguru soziolinguistikoa den arren (% 31), biztanleria osoaren kasuan baino garrantzi txikiagoa dauka, bai *familiako kideen arteko erabilerak* bai *lagunekiko erabilerak* zamaren zati bat galdu dutelako.
- ▮ Horrez gain, hizkuntza-gaitasunak ere pisua galdu du (*euskarazko ahozko gaitasuna*); ekarpenaren % 26ra jaitsi da.
- ▮ Hizkuntza transmititzen duten eragileek azalpen-ahalmenean pisu handiagoa daukate; zehazki, *lehen mailako ikasketetako, OHO eta DBHko hizkuntza* aldagaia nabarmen hazten da, eta aipatutako blokeko azalpen-ahalmen osoa biltzen du (% 27).
- ▮ Bloke soziodemografikoa ere hazi egiten da, garrantzia bikoiztu eta azalpen-ahalmenaren % 10era iristeraino. Ahalmen hori *adina* aldagaian bakarrik oinarritzen da.

Jarrerazko aldagaien ekarpena pixka bat hazten da (% 5), ondorengo esaldian oinarrituta, bereziki: *Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko.*

3.2.3. LANEKO EDO IKASKETETAKO ERABILERAREN LABURPENEA

Aztertutako aldagaiek euskararen laneko edo ikasketetako erabilerarekin lotura pixka bat txikiagoa daukate familiako kideen arteko erabilerarekin baino. Hau da, izango da hemen kontuan hartu ez dugun beste elementurik erabilera horrekin lotura duenik.

Eraitza azpimarragarrienak hauek dira:


- ▮ Testuinguru soziolinguistikoarekin –batez ere lagunena– eta euskarazko ahozko gaitasunarekin daukaten lotura handia, baina gazteen kasuan *ikasketetako hizkuntzak* azken aldagai horrek baino garrantzi pixka bat handiagoa dauka.
- ▮ Gazteen kasuan ere azalpen-ahalmen handiena daukan blokea *testuinguru soziolinguistikoa* den arren, biztanleria osoarekin alderatuta garrantzi txikiagoa dauka, batez ere *familiako kideen arteko erabilerak* pisuaren zati bat galtzen dutelako.
- ▮ *Adinak* lotura txikia dauka; pixka bat garrantzitsuagoa gazteen kasuan biztanleria osoarenean baino.
- ▮ Orain ere *iritzi/jarrerazko* aldagaiak ahulak dira, eta, berriz ere, ideologia eta nortasun politikoetako aldagaiak baztertu egiten dira, bai lagin osoaren kasuan bai gazteen kasuan ere.

Hau da, gazteen kasuan, euskararen laneko edo ikasketetako erabilera, nagusiki, hiru alderdirekin lotuta dago, bakoitzaren garrantziaren arabera ordenan aipatuta: lehenik eta behin, testuinguru soziolinguistikoa; funtsean, *lagunekiko erabileran* oinarritua, *familiako kideen arteko erabilerak* garrantzi txikiagoa baitu. Bigarrenik eta hirugarrenik, ia garrantzia berarekin, *lehen mailako ikasketetako, OHO eta DBHko hizkuntza* eta *euskarazko hizkuntza-gaitasuna* agertzen dira.

3.3. Euskararen lagun arteko erabilera

Euskararen familiako kideen arteko eta laneko edo ikasketetako erabilerarekin aplikatu dugun eskema bera aplikatuz, euskararen lagun arteko erabilera ere honela aztertuko dugu: bai biztanleria osoaren kasua (15 urteko edo hortik gorako pertsonak) bai 15 urtetik 29ra bitarteko gazteen kasua (bi adinak barne) bereiztuta.

11. grafikoa. **Aldagai independenteek lagunarteko erabilera azaltzeko duten ahalmena (%)**



3.3.1. LAGUN ARTEKO ERABILERA, BIZTANLERIA OSOAREN KASUAN

Euskararen lagun arteko erabilera aztertzeko independente edo azalpenezko gisa barne hartutako 16 aldagaien bitartez sortutako eredu estatistikoak aldagai honen % 69,6 azaltzeko du. Kopuru hori familiako kideen arteko erabilera azaltzeko lortutakoa baino txikiagoa da, baina laneko edo ikasketetako erabilerari dagokiona baino pixka bat handiagoa.

LAGUNARTEAN EUSKARAREN ERABILERAREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIAK (15 urte edo gehiagoko biztanleria)	Garrantzia (*)	Adierazgarritasuna
Aldagai soziodemografikoak	% 4,1	
Sexua	-,001	,559
Adina	,041	,000
Jatorria	,003	,042
Gaitasun linguistikoaren aldagaia:	% 13,2	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,132	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 64,5	
Euskararen erabilera familiarekin	,400	,000
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,245	,000
Iritzi eta jarrerazko aldagaiak	% 0,6	
Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	,005	,021
Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	,006	,000
Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko	,001	,000
Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik	,002	,003
Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik	-,003	,000
Transmisioko aldagaiak	% 14,7	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	,009	,001
Gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa	,083	,000
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarrizko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,055	,000
Ideologia eta identitate politikoaren aldagaiak	% 1,3	
Ezker/eskuin ardatza	,013	,007
Euskal nazionalismoa	,009	,159


(*) Multzoak osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

Estatistikoki lotura adierazgarriak ez daukaten aldagaiak lau bakarrik dira: *sexua* eta *jatorria* aldagai soziodemografikoak, iritzi/jarrerazko aldagai bat (*Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat*) eta nortasun politikoko aldagaia (*euskal nazionalista sentimendua*).

Gainerako hamabi aldagaiek euskararen lagun arteko erabileraren ereduari egiten dioten ekarpena horrela banatzen da:

- ▶ Testuinguru soziolinguistikoko aldagaiak (euskararen familiako kideen arteko eta laneko edo ikasketetako erabilera) nahikoa dira lagun arteko erabileraren bi heren (% 66) azaltzeko.
- ▶ Transmisioko eragileak (*gurasoen hizkuntza-gaitasuna* –batez ere– eta *ikasketetako hizkuntza*) ekarpen txikia egiten dute (%15); ondoren, oso gertu, *euskarazko gaitasuna* dago (% 13).
- ▶ *Adina* da lagun arteko erabilera, neurri batean, azaltzen duen aldagai soziodemografiko bakarra, nahiz eta nabarmena ez izan (% 4).
- ▶ Iritzi/jarrerazko bost aldagaietatik lau adierazgarriak diren arren, guztiek batera oso ekarpen eskasa egiten dute (%1).
- ▶ Ideologia politikoaren aldagaiarekin (*ezkerra/eskuina ardatza*) beste hainbeste gertatzen da (% 1); gainera, azterketa honetan, lehen aldiz, adierazgarria da, euskararen ezagutza eta erabileraren analisiarekiko loturari dagokionez.

12. grafikoa. **Aldagai independenteek lagunarteko erabilera azaltzeko duten ahalmena (%)**



3.3.2. LAGUN ARTEKO ERABILERA, GAZTEEN KASUAN

Euskararen lagun arteko erabilera aztertzeko independente edo azalpenezko gisa barne hartutako 16 aldagaien bitartez sortutako eredu estatistikoak aldagai honen % 66,8 azaltzen du. Kopuru hori biztanleria osoaren lagun arteko erabilera azaltzeko lortutakoa baino pixka bat txikiagoa da.

Analisian sortutako eredu estatistikoak ez die adierazgarritasunik ematen euskararen laneko edo ikasketetako erabilerarekiko independente edo azalpenezko gisa barne hartutako 16 aldagaietatik bosti. Zehazki, hauek baztertu ditugu: demografiko bat (*sexua*); transmissioko hiru aldagaietatik bi (*ikastetxetik kanpo eskola klaseetara joatea* eta *gurasoen hizkuntza-gaitasun erlatiboa*); eta ideologia eta nortasun politikoko biak (*ezkerra/eskuina eskala* eta *abertzale sentitzea edo ez*).

Euskararen lagun arteko erabilera azaltzeko adierazgarriak diren aldagaiak kontuan hartuta, haien azalpen-ahalmena honela banatzen da:

- ▶ Erabileraren erdia baino pixka bat gehiago (% 59) testuinguru soziolinguistikoko aldagaiek azaltzen dute; horien artean, *familiako kideen arteko erabileraren garrantzia laneko edo ikasketetako erabilerarena* halako bi da.
- ▶ % 15 hizkuntza transmititzeko eragileekin lotuta dago, batez ere *gurasoen gaitasunarekin* eta, neurri txikiagoan, *ikasketetako hizkuntzarekin*.
- ▶ % 13 *euskarazko ahozko gaitasunari* dagokio.
- ▶ Aldagai soziodemografikoen eta iritzi/jarrerazko aldagaien ekarpenak garrantzirik gabekoak dira.

3.3.3. LAGUN ARTEKO ERABILERAREN LABURPENA

Ondorioz, euskararen lagun arteko erabilerari dagokionez, zera esan daiteke:

- ▶ Kontuan hartutako testuinguru soziolinguistikoko hiru elementuen arteko harremana berresten da. Harreman hori *familiako kideen arteko erabilerak* –batez ere– eta *laneko edo ikasketetakoak* –neurri pixka bat txikiagoan– *euskararen lagun arteko erabilerarekin* daukaten loturan zehazten da.
- ▶ Euskara-gaitasuna lagun arteko erabilerarekin zerikusia daukan bigarren alderdia da –baina lehenengotik urrun– eta gogoan hartu behar da, aurretik adierazi dugun bezala, gaitasun hori, era berean, testuinguru soziolinguistikoarekin oso lotuta dagoela.

- ▶ Familiako kideen arteko transmisioa –nagusiki– eta hezkuntza-sistemaren bitartekoa ere euskararen lagun arteko erabilerarekin lotuta daude; biztanleria osoaren kasuan argiago, baina gazteen kasuan ere joera bera dago.
- ▶ *Adinak* lotura txikia dauka biztanleria osoaren kasuan, eta, gazteen kasuan, ia batere ez.
- ▶ Iritziek presentzia txikia daukate, pixka bat nabarmenagoa gazteen kasuan; ideologia eta nortasun politikoak, aldiz, ia erabat bazterrean daude.
- ▶ Beraz, hizkuntzaren biziraupenaren oinarria den gaitasuna-transmisioa-testuinguru soziolinguistikoa zirkulua itxi egiten da, eta, gizartean horren inguruan dauden dimentsio subjektiboak bigarren planoan daude. Hauetaz ari gara: iritziez eta jarrera ideologiko eta nortasunezkoen.

4. Euskarari buruzko iritzia

Bi elementu objektiboz gain –hizkuntza-gaitasunak (aktiboak eta pasiboak) eta hizkuntzaren erabilera mailak–, hirugarren elementu subjektibo bat ere kontuan hartu ohi da testuinguru edo talde sozial jakin batean daukan estatus soziala aztertzerakoan: horren inguruan dauden jarrerak eta iritzia. Nahiz eta, orain arte ikusi dugun bezala, dimentsio subjektibo horrek bigarren mailako garrantzi erlatiboa eduki –gaitasunarekiko, trasmisioko eragileekiko, erabilera ingurune sozialekiko eta aldagai soziodemografikoekiko–, euskararen gaur egungo dinamikan berau ere aztertu beharra dago.¹⁹

Analisis euskararen orainaldiari eta horren gaineko jardura neurri zehatz batzuei buruzko baieztapen sorta batetik abiatzen da. Inkestan jasotako gainerako alderdien arabera (soziodemografikoak, hizkuntza-gaitasunekoak, ingurune soziolinguistikokoak, transmisiozkoak eta ideologia eta nortasun politikokoak), iritzien artean harremanik dagoen edo ez jakitea da bilatzen den helburua; hau da, elementu horietako zeintzuk daukaten lotura handiagoa edo txikiagoa iritzi joera edo faktore bakoitzarekin.

4.1. Iritzi joera nagusiak

Lehenengo urratsean, inkestak emandako iritzizko 17 esaldiei analisi faktoriala egin zaie, horiek osatzen dituzten dimentsio nagusiak esploratzeko.²⁰

Lau faktore nagusi eratzen dira horrela, eta, guztira, jorrotutako espazio faktoriala esplikatzen ahalmenaren % 50,5 daukate. Hau da, espazio hori oso zatituta dago eta erdia lau faktore nagusi horietatik aparte daude; ez dute faktore horiek azaltzen.

Kontuan hartutako lau faktoreei horrela deitu diegu, berauek osatzen dituzten aldagai nagusiei erreparatuz:


¹⁹ Komeni da gogoan hartzea, adibidez, Giles, Bourhis eta Taylorrek 1977an garatu zuten Bizitasun Etnolinguistikoaren (Objektiboa) kontzeptua handik denbora gutxira Bizitasun Etnolinguistiko Subjektiboaren kontzeptuarekin osatu zela (Bourhis, R., Giles, H. eta Rosenthal, D., 1981).

²⁰ Osagai nagusien analisiaren bitartez, Varimax errotazioarekin.

- **Faktorea: EUSKALTZALETASUNA.** Espazio faktoriala % 27an azaltzen du. Faktore hori bost aldagai nagusik osatzen dute. Jarraian, faktorearen osaketan daukaten ekarpenaren arabera ordenatuta daude, handitik txikira: EAEn lan egiten duten funtzionario guztiek euskaraz ikasi beharko lukete; Ezinbestekoa da jendaurrean lan egiten duten funtzionario guztiek euskaraz hitz egitea; Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, aldeko neurri politikoak hartu behar dira, nahiz eta ez izan guztien gogoko; Ezinbestekoa da euskara sustatzeko diru publikoa gastatzea; Ezinbestekoa da ume guztiek euskara ikastea.
- **Faktorea: MESFIDANTZA.** Zazpi aldagai nagusi hauek osatzen dute (azaltzeko ahalmenaren % 11), handitik txikira ordenatuta: *Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea hain gutxi hitz egiten delarik; Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat; Krisi garai hauetan, ez da komeni hainbeste diru gastatzea euskara ikastea eta berreskuratzea sustatzeko; Niri ez zait iruditzen euskara galtzea arazoa denik; Hizkuntza guztiek ez daukate garrantzi bera gizadiarentzat eta ez dira biziraun dezaten neurriak hartu behar²¹; Euskara inposatzen ahalegintzen ari direla pentsatuz protesta egiten duen gero eta jende gehiago dago.*
- **Faktorea: ONARPEN PASIBOA** (azalpen-ahalmenaren % 7). Faktorea hiru aldagai nagusik osatzen dute. Hauek dira, handitik txikira ordenatuta: *Euskararen garapena denborarekin konponduko da, haurrek ikastetxean ikasten dutelako; Euskaraz dakitenek haien artean komunikatzeko erabili ohi dute; Kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dute euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik.*
- **Faktorea: ABANTAILA SOZIALA** (azalpen-ahalmenaren % 6.) Faktorea bi aldagai nagusik osatzen dute: *Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati; Gaur egun, Euskadin, euskaraz hitz egiten jakiteak prestigio handiagoa ematen dio pertsona bati.*

Euskararen inguruan sortutako iritzizko lau faktore edo joera horiek adierazgarritasun handiagoa daukate inkestan kontuan hartutako gainerako aldagaien edo alderdien argitan aztertzen baldin badira: soziodemografikoak, hizkuntza-gaitasunekoak, ingurune soziolinguistikoarekin lotutakoak, transmisiokoek eta ideologia eta nortasun politikokoak.

²¹ Egiazki, galdetegian sartutako esaldia positiboa zen (*Hizkuntza guztiek garrantzi maila bera daukate gizadiarentzat eta biziraun dezaten neurriak hartu behar dira*), baina haren ekarpena jasotzen duen faktoreak zer balio negatibo lortzen dituen kontuan hartuta, haren eskalaren balioak alderantzikatu behar izan ditugu, esaldi guztiek zentzu koherentea eduki zezaten.

13. grafikoa. **Euskararen gaineko gizarte-irritzi faktore nagusiak (%)**

4.2. Irizti-joera nagusiekin lotutako alderdiak

Iritzien ezagutzan sakontzeko, berriz ere Kategorien Analisisira jo dugu (CATREG), deskribatutako lau faktoreetako bakoitza aldagai independente gisa erabiliz eta aurreko kapituluetan behin eta berriz erabilitako bost blokeak independente edo azalpenezko gisa. Faktore horietako bakoitzaren eta gainerako aldagaien artean lotura dagoela ikusi den kasuetan, ondoren, bakoitzaren analisia egin dugu, lotura hori positiboa edo negatiboa den jakiteko.

4.2.1. BIZTANLERIA OSOAREN IRITZI-JOERAK

LEHEN FAKTOREA: Biztanleria osoa kontuan hartuta (15 urtekoak edo hortik gorakoak), *Euskaltzaletasuna* iritziak % 34,2ko azalpen-ahalmena dauka aztertutako aldagaien artean; hau da, irizti-joera horren bi heren analisisian barne hartu ez diren eta lan honetan ezezagunak diren bestelako elementuekin lotuta dago. Erabilitako aldagaien artean, hauek dira joera honetan presentzia nabarmena daukatenak: euskarazko hizkuntza-gaitasuna (% 26), aldagai

soziodemografikoak (% 22), nagusiki adina –29 urtetik aurrera– eta transmisioko eragileak (% 21) –nagusiki, gurasoen euskara-gaitasuna–. Balore txikiagoa daukatenean artean, euskal nazionalista sentimendua (% 11,5) eta testuinguru soziolinguistikoa (% 10,1) daude –euskararen familiako kideen arteko erabilera, bakarrik edo gaztelaniarekin batera–. Hau da, kategorien arteko korrelazioaren analisisian barne hartutako bost aldagai blokeek esku hartzen dute.

BIGARREN FAKTOREA: Euskararekiko *Mesfidantza* iritzia % 29an azaltzen da, eta elementu soziodemografikoekin, batez ere adinarekin –64 urtetik gora–, laginaren batez bestekoa baino lotuago dago (% 33,3); neurri txikiagoan, jatorriz etorkina izatearekin. Transmisioko eragileekin daukan lotura ere garrantzitsua da (% 20), baina ez familiarekin daukana, aurreko kasuan bezala, nagusiki ikasketak gaztelaniaz egitearekin eta hezkuntza-sistematik kanpo euskara ikasi ez izanarekin baizik. Horren atzetik, testuinguru soziolinguistikoaren blokea dator (% 17), nagusiki gaztelania familiako kideen artean erabiltzen den hizkuntza eta laneko edo ikasketetako hizkuntza gisa. Pisu erlatibo handiago hori euskara-gaitasun faltak (% 11) eta euskal nazionalismoarekiko identifikazio ezak (% 11) osatzen dute.

HIRUGARREN FAKTOREA: Euskararen *Onarpen pasiboa* azaltzeko erabilitako aldagaien ahalmena (% 18,6) asko murrizten da. Aldagai soziodemografikoen blokea oso lotuta dago (% 76), batez ere adina aldagaiaren bitartez (46 urte edo gehiago) eta, askoz ere neurri txikiagoan, jatorriz etorkin izatearen aldagaiaren bitartez. Gainerako elementuek askoz ere lotura txikiagoa daukate: testuinguru soziolinguistikoko aldagaiek % 12, gaztelania familiako kideen artean eta lanean edo ikasketetan erabiltzea modu berean banatuta; transmisioko eragileek % 8, batez ere ikastetxetik kanpo euskara klaseetara joan ez izanak eta lehen mailako ikasketak gaztelaniaz egin izanak; azkenik, hizkuntza-gaitasunaren aldagaiak (euskaraz ez jakitea) % 4ko lotura dauka. Gainerako elementuek ez daukate harreman nabarmenik iritzi-joera horrekin.

LAUGARREN FAKTOREA: *Abantaila soziala* iritzi-joerak ere azalpen maila txikia dauka (% 12,5). Berriz ere bloke soziodemografikoaren lotura nabarmentzen da (% 63), batez ere adina aldagaiaren eraginez (46 urtekoak edo hortik gorakoak) eta, neurri txikiagoan, jatorriz etorkin aldagaiaren eraginez. Horren ondoren, euskara gutxi edo batere ez jakitea (% 12) eta testuinguru soziolinguistikoa daude (% 8: euskara lagun arteko ohiko hizkuntza ez izatea, ezta laneko edo ikasketetako ere). Berriz ere, gainerako elementuek ez dute lotura nabarmenik eskaintzen.


Beraz, euskararekiko Euskaltzaletasun eta Mesfidantza iritzi-joerak dira euskal nazionalista sentimenduarekin lotura adierazgarria daukaten bakarrak. Lotura horren zeinua aldatu egiten da kasu batetik bestera: Euskaltzale joeraren kasuan positiboa da, eta, Mesfidatiren kasuan, negatiboa.

IRITZI-JOEREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIK (15 urte edo gehiagoko biztanleria)	IRITZI EUSKALTZALEA (% 34,2)		IRITZI MESFIDATIA (% 29)		ONARPEN PASIBOAREN IRITZIA (% 18,6)		ABANTAILA SOZIALEN IRITZIA (% 12,5)	
	G (*)	A	G (*)	A	G (*)	A	G (*)	A
Aldagai soziodemografikoak	% 22,1		% 33,3		% 76,0		% 63,1	
Sexua	,000	,768	,016	,006	-,001	,595	,006	,316
Adina	,170	,000	,232	,000	,649	,000	,597	,000
Jatorria	,051	,000	,085	,000	,111	,000	,034	,001
Gaitasun linguistikoaren aldagaia	% 26,4		% 10,8		% 4,4		% 12,4	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,264	,000	,108	,001	,044	,001	,124	,000
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 10,1		% 17,2		% 12,4		% 7,9	
Euskararen erabilera famiariarekin	,101	,000	,090	,000	,061	,000	-,005	,066
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,042	,134	,082	,000	,063	,000	,045	,008
Euskararen erabilera lagunekin	,018	,031	,027	,028	-,008	,441	,034	,000
Transmisioko aldagaiak	% 21,1		% 19,6		% 7,9		—	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	,019	,000	,086	,000	,045	,005	,011	,164
Gurasoen hizkuntza- gaitasun erlatiboa	,115	,000	,016	,089	,005	,000	,004	,711
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarritzko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,077	,000	,110	,000	,029	,000	,053	,034
Ideologia eta identitate politikoen aldagaiak	% 11,5		% 11,0		—		—	
Ezker/eskuin ardatza	,027	,038	,036	,016	-,002	,341	,058	,027
Euskal nazionalismoa	,115	,000	,110	,000	,005	,229	,039	,078

G: Garrantzia. **A:** Adierazgarritasuna.

(*) Multzok osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

14. grafikoa. **Aldagai independente bakoitzak iritzi faktoreak azaltzeko duen ahalmena (%)**



4.2.2. GAZTEEN IRITZI-JOERAK

Biztanleria osorako (15 urtekoak edo hortik gorakoak) deskribatutako lau iritzi faktore edo joerek, 15-29 urteko gazteen kasuan, gainerako aldagaiekin duten harremana pixka bat ezberdina da.

LEHEN FAKTOREA: *Euskaltzaletasun* iritziaren kasuan, aldagaiek iritzi-joera horren % 39,6 azaltzen dute, eta, horien artean, *euskarazko hizkuntza-gaitasunak* (% 37) eta transmisio eragileek (% 32) presentzia handia daukate –nagusiki, *euskara ikasketetako hizkuntza gisa* eta, neurri txikiagoan, *gurasoek hizkuntza horretan daukaten gaitasuna*–. Aldiz, biztanleria osoaren kasuan, adinak (% 8) raino jaisten da orain) eta *euskararen familiako kideen arteko*

IRITZI-JOEREKIKO INDEPENDENTEAK EDO IRAGARLEAK DIREN ALDAGAIK (15 eta 29 urte bitarteko gazteak)	IRITZI EUSKALTZALEA (% 34,2)		IRITZI MESFIDATIA (% 29)		ONARPEN PASIBOAREN IRITZIA (% 18,6)		ABANTAILA SOZIALEN IRITZIA (% 12,5)	
	G (*)	A	G (*)	A	G (*)	A	G (*)	A
Aldagai soziodemografikoak	% 7,6		% 18,1		% 55,6		% 47,2	
Sexua	,001	,860	,001	,788	,007	,452	-,001	,941
Adina	,076	,000	,181	,000	,224	,000	,401	,000
Jatorria	,018	,815	-,016	,162	,332	,000	,071	,006
Gaitasun linguistikoaren aldagaia	% 36,5		% 25,8		—		—	
Nola hitz egiten duzu euskaraz: ongi, nahiko ongi, zertxobait edo batere ez?	,365	,000	,258	,004	,132	,022	,036	,338
Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaiak	% 5,9		% 20,5		% 18,3		% 24,9	
Euskararen erabilera famiariarekin	,006	,049	,089	,002	,129	,003	,145	,000
Euskararen erabilera lanean edo ikastetxean	,075	,086	,116	,000	,054	,000	,104	,000
Euskararen erabilera lagunekin	,059	,008	,059	,257	,013	,028	,068	,036
Transmisioko aldagaiak	% 32,3		% 12,4		—		% 7,2	
Eskolaz kanpo, joan al zara noizbait euskara klaseetara?	-,003	,464	,000	,348	,006	,772	,049	,018
Gurasoen hizkuntza- gaitasun erlatiboa	,141	,000	,076	,049	,085	,141	,030	,012
Zein hizkuntzatan egin zenituen (edo egiten ari zara) oinarrizko ikasketak, OHO edo DBHkoak?	,182	,000	,124	,000	,003	,031	,072	,009
Ideologia eta identitate politikoen aldagaiak	—		—		—		—	
Ezker/eskuin ardatza	,041	,085	,033	,158	,010	,184	,011	,262
Euskal nazionalismoa	,043	,140	,079	,025	,004	,223	,016	,086

G: Garrantzia. **A:** Adierazgarritasuna.

(*) Muiltzoak osatzeko estatistikoki adierazgarriak (*garrantzitsuak*) diren ekarpenak soilik gehitu dira.

erabilerak –orain adierazgarria izateari utzi dio– garrantzi txikiagoa daukate, eta euskararen lagun arteko erabilerari bide ematen diote (% 6). Beraz, kategorien korrelazioan sartutako bost aldagai bloketako lauk esku hartzen dute, eta ideologia eta nortasun politikoei dagokiena bazterrean geratzen da.

BIGARREN FAKTOREA: *Mesfidantza* iritzia (% 31,3an azaldua), gazteen kasuan –presentzia handia, biztanleria osoaren kasuan lortutakoa baino handiagoa–, *euskarazko hizkuntza-gaitasun ezarekin* (% 26) lotuta agertzen da, baita testuinguru soziolinguistikoarekin ere (% 21), batez ere *euskara laneko edo ikasketetako hizkuntza* eta *familiako kideen arteko hizkuntza ez izatearekin*. Horren eraginez, biztanleria osoaren kasuan lehen garrantzia zuten aldagai batzuek, *adinak* (lehen % 23koa zuen eta orain % 18koa), *jatorriz etorkin* izateak eta *hezkuntza-sistematik kanpo euskara klaseetara ez joateak*, adierazgarritasuna galdu dute. Aldiz, *gaztelania laneko edo ikasketetako hizkuntza gisa* (% 12) aldagaiaren garrantzia pixka bat hazi da. Faktore horretan bost aldagai blokeetatik lauk bakarrik esku hartzen dute; berriz ere, ideologia eta nortasun politikoei dagokiena bazterrean geratzen da.

HIRUGARREN FAKTOREA: *Onarpen pasiboak* (% 21,7ko azalpen-ahalmena) gazteen kasuan askoz lotura txikiagoa dauka –lagin osoarekin alderatuz– bloke soziodemografikoarekin, baina oraindik ere nagusia da (% 56); jaitsiera hori *adina* aldagaiaren murrizketa handiaren eta *jatorria* aldagaiaren desagertzearen ondorioz izan da. *Hizkuntza-gaitasuna* aldagaiak ere (euskaraz ez jakitea) adierazgarritasuna galdu du. Aldiz, testuinguru soziolinguistikoaren presentzia handitu egin da (% 18), *gaztelaniaren familiako kideen arteko erabilera* aldagaiaren bitartez. Gainerako elementuek ez daukate harreman nabarmenik iritzi-joera horrekin.

LAUGARREN FAKTOREA: *Abantaila soziala* iritziaren kasuan (% 22,1ean azaldua), bloke soziodemografikoarekin daukan lotura nabarmentzen da (% 47), baina biztanleria osoaren kasuan baino pisu txikiagoa dauka, *adina* aldagaiak presentzia galdu duelako. Ingurune soziolinguistikoak ere presentzia nabarmena dauka (% 25) –*euskara familiako kideen artean, lanean edo ikasketetan eta lagun artean ez erabiltzea*– eta transmisio aldagaiaren kasuan txikiagoa (*ikasketetako hizkuntza, gaztelania*). Gainerako elementuek ez daukate harremanik iritzi-joera horrekin.

4.2.3. IRITZI-JOEREN LABURPENA

Azterketan jasotako informazioa EAeko biztanleen artean dagoen euskarari buruzko iritzi-multzo aberats eta zatitua agortzetik oso urrun dagoen arren, inkestan bildutako informaziotik abiatuta lau iritzi-joera garbi eta koherente daude:

- ▶ Azalpen-ahalmen handiena lortzen duen joera edo faktorea *Euskaltzaletasuna* izenekoa edo euskararen aldekoa da (% 27); horren ondoren, hizkuntza horrekiko *Mesfidantza* iritzia dago (% 11); hirugarrenik, hizkuntza horren *Onarpen pasiboa* (% 7); azkenik, euskarari *Abantaila Sozialak* egotzen dizkion iritzia dago (% 6).
- ▶ *Euskaltzaletasuna* faktore edo iritzi-joeraren kasuan, *hizkuntza-gaitasunak* (euskaraz jakitea) eta hizkuntzaren transmisioko eragileak dira gehien nabarmentzen direnak; *Onarpen Pasiboa* eta *Abantaila Soziala* iritzien kasuan, berriz, *aldagai soziodemografikoen* blokea nagusitzen da: *adina* –46 urte edo gehiago edukitzea– bi faktoreei dagokionez eta, *jatorri etorkina*, *Onarpen Pasiboari* dagokionez. Hori guztia baliagarria da bai biztanleria osoaren bai gazteriaren kasuan. *Mesfidantza* iritziaren faktoreak, neurri handi batean, *adinak* baino garrantzi handiagoa dauka biztanleria osoaren kasuan, baina gazteen kasuan *euskara-gaitasun eza* nagusitzen da.
- ▶ Adina edozein dela ere, *Euskaltzaletasun* eta *Mesfidantza* iritzi-joeretan transmisioko eragileetako batek lortutako garrantzia nabarmentzen da: *ikasketetako hizkuntza*. *Euskaltzaleen* artean, *euskaraz ikasi dutenak* nabarmentzen dira, eta, *Mesfidati*en artean, *gaztelaniaz* egin dutenak.
- ▶ Faktore horietako lehenengo biek bakarrik erakusten dute euskal nazionalista sentimenduarekin loturarik –*Euskaltzale* faktorearen kasuan positiboa eta *Mesfidatiaren* kasuan negatiboa–, baina 15-29 urtekoen kasuan biak desagertzen dira.

Aurrekoak estatistikoki baieztatzen du bai *Euskaltzale* iritzi-joera bai *Mesfidatiarena* bi ingurune –edo azpikultura– soziolinguistikoko ezberdinetan finkatuta daudela, eta elkarrengandik urrun daudela edo, are gehiago, kontrajarrita. *Euskaltzaletasun* iritziak gurasoek euskara nagusi dutela, ikasketak hizkuntza horretan egin direla eta familia, lan edo ikasketa eta lagun inguruneetan hizkuntza horren erabilera nahiko altua dela adierazten du. Euskararekiko *Mesfidantza* iritzi-joerak gaztelania hizkuntza-ardatz gisa dauka eta euskara arrotz moduan. Bi diskutso sozial horiek EAEko unibertso soziolinguistikoko aurkia eta ifrentzua dira.

Onarpen pasiboa iritzia planteamendu horiekiko distantziakidea da, eta, neurri bateraino, axolagabetasun eta *laisser faire* jarrera erakusten du hizkuntzari dagokionez; hau da, euskara onartzeko aurretiko jarrera generikoa dauka, baina aurreko bi jarrerak erakusten dituzten aldeko edo aurkako bizipen eta uztardurarik gabekoa.

Abantaila soziala joera lehenengo hiru iritzi-joeren ardatzarekiko independentea da, eta orain dela gutxi arte euskararen historia sozialean ezohikoa izan den dimentsio bat azalerraten du: berau jakiteak sari soziala dakarrela.

Azkenik, aipatutako iritzi faktore edo joera horien arteko alde aipagarri batzuk agertzen dira, biztanleria osoa edo gazteria bakarrik aztertzearen arabera. Alde batetik, gazteriaren kasuan, aldagai blokeren bat edo batzuek presentzia galtzen dute, faktore guztiei dagokionez. Hala, biztanleria osoaren kasuan *Euskaltzaletasun* eta *Mesfidantza* faktoreetan

presente dagoen *nortasun politiko*a (euskal nazionalista sentitzea edo ez) ez da kontuan hartzen gazteriaren kasuan. *Onarpen pasiboaren* joeran, gazteriaren kasuan, *hizkuntza-gaitasuna* eta *transmisio eragileak* ere desagertu egiten dira; *Abantaila sozialaren* joeran, berriz, *euskarazko hizkuntza-gaitasuna* da desagertzen den aldagai bakarra.

Baina ezberdintasun aipagarriena da gazteen kasuan iritzi-joerak beren eguneroko inguruneko elementu soziolinguistikoekin lotuago daudela –biztanleria osoaren kasuan baino–: beste modu batera esateko, ingurune euskaldun batetik datozen eta harekin harremana daukaten gazte sektoreek iritzi Euskaltzaleagoa daukate, eta, oro har, euskarari bizkar emanda bizi den ingurune batekin lotuta daudenek hizkuntza horrekiko jarrera *mesfidatiagoa* daukate. Hau da, gazteen kasuan, indartu eta nabarmendu egiten da biztanleria osoaren kasuan aipatutako bi ingurune soziolinguistiko kontrajarri horiek hor daudela.

5. Ondorioak eta gogoetak

5.1. Gaitasun linguistikoa

5.1.1. ELEBITASUN INDIVIDUALA ETA GIZARTE-ELEBITASUNA

Hasi aurretik, komeni da elebitasun indibidualaren eta gizarte-elebitasunaren arteko ezberdintasun kontzeptuala gogora ekartzea. Elebitasun indibiduala bi hizkuntza nahikoa ezagutzen dituzten pertsonen ezaugarria da. Bestalde, gizarte-elebitasuna da eremu geografiko batean edo talde batean bi hizkuntza aldi berean existitzen direnean. Azken hau gertatuz gero, hiru egoera mota eman daitezke:

- a. Talde horretako pertsona guztiek bi hizkuntzak ezagutzea. Hori ezinbesteko baldintza da taldea osatzen duten pertsonak bata edo bestea bereizketarik egin gabe erabiltzeko, nahierara. Egoera hau *gizarte-elebitasun orekatutzat* jo dezakegu.
- b. Talde horretako hainbat pertsonak bi hizkuntzak ezagutzea (elebidunak), eta gainerakoek bietako bat baino ez (elebakarrak), muga bikoitza suposatzen duena berdintasun harreman batetarako. Egoera linguistiko honi *gizarte-elebitasun desorekatua* deitu dakiok.
- c. Bi talde linguistiko bereizi egotea, bakoitza bere harremanekin: horietako batek hizkuntza bat ezagutzen du (A elebakarrak) eta besteak bestea (B elebakarrak); bi talde linguistikoen arteko komunikazioa eragotziko lukeena.

EAEn ematen den gizarte-elebitasuna bigarren kategoriakoa da (b), eta hori oztopoa da legeak dioena osotasunean betetzeko. Hots, euskaraz eta gaztelaniaz elebidunak diren pertsonak zein gaztelaniazko elebakarrak direnak praktikan euren eskubide linguistikoak mugatuak dituzte:

- ▶ Elebidunak diren pertsonak, nahi duten guztietan euskara erabiltzeko duten eskubidea mugatua edo galarazia dutela sentitu dezakete, beren solaskidetakoren bat edo guztiak hizkuntza hori ezagutzen ez dutenean.
- ▶ Elebakarrak diren pertsonak alboratuak edo/eta diskriminatuak sentitu daiteke hainbat egoeretan, egoera horiek maila batean edo bestean euskara ezagutzea eskatzen badute.

5.1.2. GIZARTE-ELEBITASUN DESOREKATUA

Aipatutako euskararen gaineko «Euskara: erabilera, jarrerak, politikak» inkestaren datuek erakusten dutenez, 15 urte edo gehiagoko²² biztanleen % 37 *elebidunak* dira, eta % 24k euskararen nolabaiteko ezagutza dute (ahoz, ulermen mailan, irakurritz edo idatziz) baina *elebidunak* izatera iristeko behar adinako gaitasunik gabe, horregatik *elebidun hartzaileak* bezala izendatzen dira. Gainerakoak (% 39) *gaztelaniazko elebakarrak* dira (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 2).

Bestalde, gurean zein elebidun indibidual mota ematen den aztertu da. Hots, elebidunak diren pertsonen duten gaitasun linguistiko erlatiboa nolakoa den: alegia, euskaraz hitz egiteko duten erraztasuna gaztelaniaz hitz egitekoa baino *handiagoa*, *berdina* edo *txikiagoa* den. Datuek erakusten dute elebidunak diren pertsonen erdiak, gutxi gora behera, gaztelania erabiltzeko erraztasun handiagoa dutela euskara erabiltzeko baino, laurdenak berdin moldatzen direla hizkuntza batean zein bestean, eta beste laurdenak euskaraz hobeto moldatzen direla gaztelaniaz baino.

Beraz, EAeko egoera *gizarte-elebitasun desorekatutzat* jo dezakegu, eta ondorioz *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak* agindutakoa ezin da osotasunean bete, herritar guztien eskubide linguistikoak berdintasunean bermatzeari dagokionean. Gainera, egoera horri gehitu behar zaio elebidunak diren pertsonen portzentaje handi batek errazago egiten dutela gaztelaniaz euskaraz baino, pertsona elebidun gehienek berezko joera, errazagoa egiten zaien hizkuntzan hitz egitekoa izan daitekeelarik.

Baliagarria suertatzen da beraz, euskara-gaitasunarekin zerikusi handiagoa duten baldintza sozialak zeintzuk diren sendoki egiaztatzea, absolutuan edo erlatiboki, modu horretan eskuartze eraginkorragoa egin ahal izango dugulako gizarte-elebitasun orekatuagoari bide egiteko. Gai horren inguruan hitz egiten da ondorengo lerroetan.

5.2. Gaitasun linguistikoari buruz

Azterketa honetan euskarazko ahozko gaitasunarekin (ongi edo nahikoa ongi hitz egin) eta gaitasun erlatiboarekin (euskaraz gaztelaniaz baino hobeto, berdin edo okerrago hitz egin) harreman handiena duten aldagaiak zeintzuk diren adierazten dira:

²² Txosten honek oinarrian duen inkestak EAeko 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren datuak biltzen ditu, eta aldiz *V Inkesta Soziolinguistikoak* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012) 16 urtetik gorako biztanleriaren datuak jasotzen ditu. Hori, eta erabilitako diseinu teknikoak ere ezberdina izan dela kontuan hartuta, bi ikerketen datuak ez dira erabat alderagarriak.

- ▮ Euskarazko ahozko gaitasuna eta –batez ere– gaitasun erlatiboa oso lotua agertzen dira testuinguru sozialean egiten den erabilerarekin (familian, lantokian edo ikasketetan, eta lagunartean). Aldagai honek aztertutako gainerakoek baino azalpen gaitasun handiagoa erakutsi duelarik (soziodemografikoak, iritzizkoak eta jarrerazkoak, hizkuntza-transmisiozkoak eta ideologia eta identitate politikozkoak).
- ▮ Hizkuntzaren transmisiorako hiru eragileak ere (gurasoen hizkuntza nagusia, ikasketa hizkuntza eta eskolaz kanpo hizkuntza ikastea) garrantzitsuak dira zentzu honetan, bigarren mailan bada ere. Zehazki, ikasketetan erabilitako hizkuntza da harreman handiena erakusten duena euskararen gaitasun mailarekin, eta gurasoen hizkuntza nagusia da elebidunen gaitasun erlatiboarekin harreman handiena erakusten duena.
- ▮ Aldagai soziodemografikoen (adin eta jatorriaren) eragin apala hirugarren tokian kokatzen da, aztertutako jarrera eta iritziak atzetik dituztela. Aldagai horiek aztertutako euskararen bi gaitasun motekin –absolutua eta erlatiboa– harremana erakusten dute, baina txikiagoa.
- ▮ Aldiz, euskararen gaitasun linguistikoarekin ez dute harremanik erakusten ez sexuak, aldagai demografiko moduan, ezta ideologia edo identitate politikoak ere.

Teoria soziolinguistikoek nabarmendu dute hizkuntza-gaitasunak eta erabilerak elkarrenganako eragina dutela: zenbat eta gehiago erabili gaitasuna ere handiagoa da, eta gaitasuna zenbat eta handiagoa erabiltzeko joera ere areagotu egiten da. Euskararen kasuan ere aipatutako bi elementuen arteko elkareragitea ematen dela dirudi: testuinguru soziolinguistikoko aldagaiak dira (erabilera familian –batez ere–, lantokian edo ikasketetan, eta lagunartean) gaitasunarekin harreman estuena dutenak.

Espero zitekeen moduan, ikasketa hizkuntza euskara-gaitasunarekin, edo gaitasun ezarekin, biziki lotua agertzen den transmisio aldagai bat da, bereziki elebidun gehienek gaztelania dutelako *lehen hizkuntza* edo *ama hizkuntza* eta euskara hezkuntza sistema bidez jaso dutelako. Hala baina, elebidunen gaitasun erlatiboari dagokionez, gurasoen hizkuntza nagusiak protagonismo handiagoa du hezkuntza sistemak baino. Beraz, familien eragina nabarmentzen da. Izan ere, pertsonen lehen mailako sozializazioaren oinarritzko ingurua familia da eta bere baitan barnebiltzen ditu elebitasun indibidual orekatua ahalbidetzeko ezinbestekoak diren hizkuntza transmisioaren esparru ezberdinak: kognitiboa, afektiboa eta balioena.

Azkenik, azpimarratu behar da, horren inguruan zabaldutako topikoak direnak direla, azterketa honetan euskararen ezagutzak ez duela erakusten joera politiko identitario edo ideologikoekin lotura estatistiko adierazgarririk –lotura ahulik ere ez–.

5.2.1. FAMILIA-INGURUNEAREN HARREMANA GAITASUN LINGUISTIKOAREKIN

Jakina zenez, gurasoen hizkuntza menderatzaileak euren ondorengo gaitasun linguistikoarekin zerikusi handia duela baieztatzen da, izan seme-alaben euskararen gaitasun aktiboekin (hitz egin eta irakurri) zein pasiboekin (ulertu eta irakurri):

- ▶ Gurasoen hizkuntza nagusia euskara den kasuetan, seme-alaben hezkuntzako hizkuntza eredu gaztelania izanagatik ere, euskararen gaitasun linguistiko nahikoa bermatzen da kasu gehienetan, bereziki ulermen mailan eta hitz egiteko gaitasunean, eta neurri apalagoan idazketa eta irakurketa mailan. Hots, landutako lau trebezietatik, irakurtzea eta idaztea dira familia transmisioetik autonomia handiagoa erakusten dutenak.
- ▶ Gurasoen hizkuntza nagusi nabarmenik ez duten familietan –bi edo gehiago erabiltzen dituztelako– hazitako pertsonak, berriz, batez beste euskararen gaitasun murriztagoa erakusten dute –lau trebezietan–, euskara hizkuntza nagusia den familiekin alderatuta.
- ▶ Gurasoen gaztelania dutenean hizkuntza nagusizat, apalagoa da lau trebezi horietan –nagusiki hezkuntza sistemaren bidez, baina baita helduen ikaskuntza bidez ere– lortutako euskararen gaitasun maila, eta biztanleriaren multzo oso horretara zabaltzetik urrun geratzen da.

Hizkuntza nagusi nabarmenik ez duten familien kasuan, suposatu dezakegu, kasu askotan, gurasoetako bat euskara eta gaztelaniako elebiduna den eta bestea gaztelaniako elebakarra den bikoteez²³ osatuak egongo direla, egoera hori azken hamarkadetan nabarmen ugartzen ari baita.

Horregatik, eta euskararen familia transmisioari dagokionez, familia linguistiko mota horiek eskaintzen dituzten arrisku eta aukerak azpimarratu behar dira:

- ▶ Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren transmisio osorako aukerak murriztu egiten dira, hizkuntza hori nagusizat duten familien transmisioarekin alderatuta, eta ondorioz oztopo dira elebitasun indibidualaren zabalkunderako.
- ▶ Baina, bestalde, familia hauek bi hizkuntzen aldibereko transmisioan lagundu dezakete, eta hori aberastasun kultural handiagoaren iturri izan liteke egoera hori behar bezala ulertua eta kudeatua izaten bada. Hau da, betiere kontziente izanik bi hizkuntzetatik minorizatutakoa dela ahalegin handienak eskatzen dituen. Horren ezean, gizarteko gehiengoaren eraginez, abantaila sozial handiagoak dituen

²³ Aurreko garaietan, guraso elebidunak ziren seme-alabei gaztelaniaren erabilera barnertzeko hautua egiten zutenak, eta kasu askotan hizkuntza hori ongi ikas zezaten bilatzen zuten. Gaur egun joera hori estatistikoki garrantzirik gabekoa da.

hizkuntzaren aldeko egoerak elebitasun desorekatu baterantz –erdararen alderantz– bideratzeko dagoen arriskua nabaria da.

Lortutako elebitasun erlatiboari dagokionez –orekatua zein hizkuntza baten edo bestearen alde desorekatua–, gurasoengan nabarmentzen den hizkuntza zeharo lotua agertzen da ondorengo elebitasun motarekin. Harreman hori agerian geratzen da ondorengo horiek ikasketak burutzen ari diren (edo burutu dituzten) hizkuntza eredua dena delakoa izanda ere:

- ▶ Elebitasun orekatuak leku handiagoa hartzen du –gehiengoa izatera iritsi gabe–, bi hizkuntzatatik bat bestearen gainetik nabarmen gailentzen ez den familietan.
- ▶ Gaztelaniaz soilik ikasi duten pertsonak, eta, aldi berean, euren gurasoek hizkuntza bat edo bestearen aldeko nagusitasunik erakusten ez duten edo gaztelaniaren aldekoa erakusten duten pertsonak, elebitasuna lortzen dutenean, ez ohi da orekatua izaten, eta orokorrean gaztelaniaz erabiltzeko erraztasun handiagoa izaten dute.
- ▶ Elebidunen % 11k (biztanleria osoaren % 6 inguruk) gaztelania nagusi den familietan dute jatorria, eta hizkuntza horretan burutu dituzte ikasketak. Elebitasun hori gehienbat helduen ikaskuntza bidez lortua izango da.

5.2.2. HEZKUNTZA-INGURUNEAREN HARREMANA GAITASUN LINGUISTIKOAREKIN

Euskararen transmisioan hezkuntza sistemak –famiiliarekin batera– duen garrantzia kontuan hartuta, ikasketetako hizkuntza eredu (euskaraz, gaztelaniaz edo elebietan) eta aztertutako lau hizkuntza-trebezien (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi) artean dagoen harremana aztertu da, eta baita, ahozko gaitasun erlatiboarekin dagoena ere.

Lagin osoa kontuan hartuta, ikasketa hizkuntza hertsiki lotua agertzen da hizkuntza-gaitasun aktiboekin (hitz egin eta idatzi) zein pasiboekin (ulertu eta irakurri):

- ▶ Lehen mailako hezkuntza, OHO edo DBH euskaraz burutu dituztenen gehiengoak –baina ez denek– adierazi dute hizkuntza hori ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna dutela, familiako ohiko hizkuntza ez izan arren.
- ▶ Ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz maila berean egin dituztenenen gaitasun portzentajeak, hamarretik zortzitik (ulertu) hamarretik zazpirako (hitz egin) tartean kokatzen dira; hots, kasu askotan eredu elebidunak ez du bermatzen euskarazko trebetasun nahikoaren transmisioa. Muga hau oraindik ere handiagoa litzateke multzo horretatik kenduko bagenitu barnebilduak aurkitzen diren familiako hizkuntza euskara izan dutenak.

- Ikasketak euskaraz burutu dituztenen artean ez bezala, gainerako bi ereduetan ikasi dutenen artean (eredu elebiduna eta gaztelaniazkoa) irakurketa eta idazketa gaitasun-nahikoak zabalduago daude hitz egiteko eta ulertzeko gaitasunak baino. Hau da, dirudienez bi eredu horiek ahalmen handiagoa dute hizkuntzaren erabilera formal edo teknikorako gaitasunak helarazteko, eguneroko bizitzako egoera komunikatibo arruntetan moldatzeko tresnak eskaintzeko baino.

Gurasoek hizkuntza nagusia gaztelania izan eta, hala ere, elebidunak izatera iritsi direnen kasuak soilik aztertuta, argi ikusten da hizkuntza eredu ezberdinek ez dutela bermatzen elebitasun orekatua –eta gutxiago, euskararen aldekoa–. Hots, ez dirudi hezkuntza sistema bere kabuz gai denik sistematik pasatzen direnen gehiengoari elebitasun orekatua eskaintzen, ez behintzat familiako errefortzurik gabe. Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren gainean hezkuntza sistemak duen eragina familiak duenarekin alderatzen badugu, agerian geratzen da gurasoengan nagusia den hizkuntzak, ikasketen hizkuntza ereduak baino eragin handiagoa duela ondorengoek lortzen duten elebitasun motan.

Biztanleriaren gehiengoarentzat, elebitasun orekatura gehiago hurbiltzeko, hots euskara eta gaztelanian gaitasun nahikoak eta antzekoak lortzeko, emaitza hoberenak bi baldintza hauek batera ematen direnean lortzen dira: euskarazko ereduak ikastea eta familiako hizkuntza transmisioa hizkuntza horretan izatea –nagusiki edo gaztelaniarekin batera–.

5.3. Euskararen erabilerari buruz

Hizkuntza baten transmisioa bere biziraupenerako ezinbesteko baldintza bada ere, hori ez da nahikoa hizkuntza horrek baldintza duinetan bizirik iraun dezan. Hizkuntza bat bizia izateko gakoa erabileran datza. Horregatik, euskararen erabilerarentzat lagungarri eta sustatzaile izan daitezkeen elementuak ere aztertu dira, horretarako esku artean dugun erreferentziarako inkestak eskainitako informazioa erabiliz.

Hizkuntza baten erabilera abstraktuan ematen ez denez, egoera eta solaskide oso zehatzei lotua baizik, hiru esparru aztertu dira: familia, lana edo ikasketak eta, azkenik, lagunartea.

5.3.1. FAMILIAN

Elkarrizketatutako pertsonen euren familiarekin egiten duten euskararen erabilerari buruzko informazioak ondokoa erakusten du:

- ▶ *Gurasoen gaitasun linguistikoak* du –transmisio eragileen taldeko parte izaki–harreman handiena familian egiten den euskararen erabilerarekin, batez ere, gazteentzat.
- ▶ Hizkuntzaren erabilerarako beste bi esparruek ere (lagunarteko batez ere, eta *lan edo ikasketa* esparruek) harreman handia dute familian egiten den euskararen erabilerarekin.
- ▶ *Jarrera eta iritziek*, aldiz, harreman mugatua erakuste dute familian egiten den euskararen erabilerarekin, gazteen artean harremana apur bat handiagoa bada ere.
- ▶ *Aldagai soziodemografikoei* dagokionez, soilik *adinak* egiten du ekarpen adierazgarririk, bai biztanleria osoaren kasuan zein gazteenen kasuan, *jatorriak* soilik biztanleria osoaren kasuan egiten du ekarpenik; *sexua*, aldiz, ez da adierazgarria.
- ▶ *Ideologia* edo *identitate politikoak* ez du harremanik erakusten familian egiten den euskaren erabilerarekin.

Emaizta horiek erakusten dute euskara batez ere erabiltzen dutela, familiatik haratago, aldi berean euskara ohikoa den ingurune batean parte hartzen dutenek eta, bereziki, inguru horietan hizkuntza horren gaineko jarrera eta iritzi positiboak nabarmentzen direnean.

Ez da ustekabekoa familiako euskararen erabilerak beste aldagai batzuek baino lotura handiagoa izatea *euren gurasoen gaitasun linguistikoarekin*, batez ere gazteen kasuan, kontuan hartzen badugu hizkuntza horren transmisioa familian ematen dela neurri handi batean. Beraz, gazteek familian erabiltzen duten hizkuntza, funtsean, ez dago euren gaitasun linguistikoari lotuta, familian ematen diren baldintza linguistikoei baizik. Hori horrela izanik, erreparatu behar diogu euskara ikastetik erabilerarako saltoa ematerako garaian muga argi batekin aurkituko garela berau erabiltzeko ingurune –familiar eta, orokorrean, sozial– egokia izan ezean.

5.3.2. LANTOKIAN EDO IKASKIDEEKIN

Lan munduan edo ikaskideekin euskararen erabilerari dagokionez, ondorio nagusiak hauek dira:

- ▶ Eremu hauetako erabilerak, aztertutako beste bi testuinguru soziolinguistikoetan –familian eta lagunartean– dagoen erabilerarekin harreman handia erakusten du, eta euskarazko ahozko gaitasunarekin ere bai.
- ▶ Gazteentzat, testuinguru soziolinguistikoaren garrantzia apur bat txikiagoa da biztanleria orokorarentzat baino, familian eta lagunartean erabiltzen diren hizkuntzarekiko lotura ahulagoa baita. Oso hurbil, bigarren eta hirugarren lekuetan, ia parekatuta, ikasketa hizkuntza eta euskarazko ahozko gaitasuna agertzen dira.

- ▶ Adinak harreman ahula du aldagai honekin, baina zertxobait handiagoa gazteen artean biztanleria orokorraren artean baino.
- ▶ Jarrera/iritzizko aldagaiekin harremana ahula da eta ezdeusa, berriz ere, ideologia eta identitate politikoarekin, bai biztanleria osoaren baitan zein gazteen artean.

Gazteen kasuan, erraz uler liteke lan edo ikasketa munduan erabiltzen den hizkuntzak familiarekiko nolabaiteko autonomia izatea eta, aldiz, lotuagoa agertzea gazteei beraiei atxikitako testuinguru soziolinguistikoei, lagunarteari eta ikasketa inguruari esaterako.

5.3.3. LAGUNARTEAN

Lagunartean egiten den euskararen erabilerari dagokionez zera esan daiteke:

- ▶ Berriz ere agerian geratzen da, testuinguru soziolinguistikoaren hiru elementuen arteko aipatutako harremana, nabarmenago familiako erabilerarekin eta, neurri apalagoan, lan eta ikasketa inguruetan ematen denarekin.
- ▶ Euskara-gaitasuna da lagunartean egiten den erabilerarekin harremana duen bigarren elementua.
- ▶ Familiaren bidez –nagusiki– eta hezkuntza sistema bidez gauzatzen den transmisioak ere harremana du lagunartean egiten den erabilerarekin, nabarmen biztanleria orokorraren kasuan eta zertxobait ahulago gazteen artean.
- ▶ Adinak harreman ahula du biztanleria orokorraren kasuan, eta ia hutsala gazteen artean.
- ▶ Iritzi eta jarrerek harreman apala dute, zertxobait nabarmenagoa gazteen kasuan, eta ideologia eta identitate politikoak apenas batere ez.

Lagunartean egiten den erabilerak, beraz, berretsi egiten du *testuinguru soziolinguistiko-gaitasun-transmisio* zirkulua, hizkuntzaren biziraupena sostengatzen duena, eta askoz leku zuhurragoan geratzen dira hizkuntzaren inguruan gizartean aurkitu ditzakegun aldagai subjektiboak: iritziak eta jarrera ideologiko eta identitarioak.

5.4. Motibazioei eta iritzi-joerei buruz

5.4.1. MOTIBAZIOEN ERAGINA

Baldintza sozialak hizkuntza baten aurkakoak direnean –egoera sozial gutxituan dauden hizkuntza guztiekin gertatzen den moduan–, elebidunak diren pertsonen hizkuntza hori erabiliko dute soilik hizkuntza horrenganako bulkada handiagoa dutenean –dimentsio motibazionala eta emozionala– edo/eta gaitasun handiagoa dutenean –dimentsio kognitiboa–, horiek inguru sozialean aurkitu ditzaketen zailtasunak gainditzeko bide emango dietelako. Hori ez da soilik euskararekin gertatzen, Fasoldek adierazi zuen bezala (Fasold, 2010: 419):

...AEBn ingelesa ez den beste hizkuntza bateko hiztunen komunitate bati eusteko zer behar den pentsatu behar dugu. Zalantzarik gabe, AEBn sekulako abantaila da ingelesa ezagutzea eta erabiltzea, eta, beraz, beste hizkuntza bati eustek eagoera eta motibazio jakin batzuk eskatzen ditu.

Aipatu dugu jada zein den EAEn ematen den elebitasun sozial mota. Egoera horrek, noski, eragin zuzena du euskararen erabilerarako abiapuntuko baldintzetan. Esku artean dugun ikerketak «Euskara: erabilerak, jarrerak, politikak», pertsona elebidunak, gazteleraren parean, euskararen erabileraren alde egiteko izan ditzaketen motibazioetara hurbiltzeko informazio interesgarria eskaintzen digu.

Datuek erakusten dute euskara-gaitasuna –ez erabilera– gure gizartean abantaila moduan hautematen dela, baina gaitasun hori izanagatik elebidunek ez dute prestigio berezirik. Hala, elkarrizketatutako pertsonen % 85en ustez “*euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati*”, eta hori euskara ikasteko arrazoi indartsutzat jo liteke. Hala ere, aukera gehiago eskaintzeak ez dakar berarekin pertsona elebidunen prestigioa handiagoa izatea: “*Euskaraz hitz egiten jakiteak prestigio gehiago ematen diola pertsona bati*” uste dutenak % 45 baino ez dira –eta portzentaje hori % 38ra txikitzen da euskaraz zertxobait dakitenen artean–, ondorioztatu daiteke beraz gure gizartean erabilera ez dela gehiengoaren aldetik saritua izaten.

Zentzu horretan, hori guztia bat dator pertsona elebidunek euren artean euskara erabiltzen dutela (“*euskaraz dakitenek euren artean komunikatzeko euskara darabilte normalki*”) biztanleriaren erdiak baino gehiagok pentsatzearekin (% 58). Hau da, gizartean jende ugari ez du hautematen pertsona elebidunek lehenasunez euskararen erabileraren alde egiten dutenik, eta horrek bat egiten du erabileraren aipatutako balorazio sozialaren gabeziarekin.

Hori dela eta, komeni da elebazarrek erabili ohi dituzten argudioak gogoraraztea euskara ikasteko eta ez ikasteko, horretarako EAEn aurretik egindako lan bat erabiliko dugularik

(Baxok *et al.*, 2006). Lan horren arabera, euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko lehen eta hirugarren arrazoiak identitarioak dira, indibidualak edo kolektiboak: “*herri honen hizkuntza da*” eta “*euskalduna sentitzen naizelako*”. Bigarren arrazoa komunikatiboa da: “*euskaldunak diren pertsonekin komunikatu ahal izateko*”. Eta laugarren arrazoa arte ez da agertzen euskara jakitea beharrezkotzat edo ezinbestekotzat jotzea –arrazoi profesionalengatik, kasu honetan: “*lana bilatzeko edo lanerako behar dudalako*”.

Aldiz, euskara jakiteko behar soziala ez egotea da (*ez dut behar komunikatzeko, denek badakite gaztelania*) hizkuntza ez ikasteko arrazoi nagusia EAEn (% 28). Bigarren (*Nahiago dut nire denbora beste gauza batetan eman*, % 26) eta laugarren (*Ez dut behar nire lanerako edo lana aurkitzeko*, % 12) arrazoiak ere agerian uzten dute euskara ikasteko –eta, hortaz, erabiltzeko– beharrik edo presio sozialik ez dela hautematen²⁴.

5.4.2. IRITZI-JOERA NAGUSIAK

Oinarrian erabiltzen ari garen «Euskara: erabilera, jarrerak, politikak» ikerketa berrartuz, lau dira inkesta horretako emaitzen harira argi eta garbi osatu diren iritzi-joera nagusiak: lehenik, joera *Euskaltzalea* edo euskararen aldekoa; ondoren, hizkuntzarekiko *Mesfidatia* den iritzi-joera; hirugarrenik, *Onarpen Pasiboaren* iritzia eta, azkenik, euskarari *Abantaila Sozialak* egozten dizkion joera.

Gizartean ematen diren iritzi-joera horien harremana gainerako aldagaiekin honela laburbildu daiteke:

- ▶ *Euskaltzalea* deitu dugun iritzi-joerarentzat *gaitasun linguistikoak* (euskara jakiteak) eta *transmisio eragileen hizkuntzak* aparteko garrantzia hartzen duten bitartean, *Onarpen Pasiboa* eta *Abantaila Sozialen* iritzi motak dituztenentzat aldagai *soziodemografikoak* nagusitzen dira: adina –46 urte edo gehiago izatea– bi joera horietan, eta *jatorri immigrantea* izatea *Onarpen Pasiboaren* kasuan. Hori guztia, biztanleria osoan zein gazteen artean ematen da. *Mesfidatien* iritzi-faktorea ere, neurri handi batean, adinaren gainean eraikitzen da biztanleria osoaren kasuan, baina gazteen artean, aldiz, *euskarazko gaitasun eza* nagusitzen da.
- ▶ Adina dena delakoa izanda, iritzi-joera *Euskaltzalean* eta *Mesfidatian* transmisio eragile batek lortutako garrantzia nabarmentzen da: *ikasketak burutu diren hizkuntza*.

²⁴ Momentu honetan ez ditugu kontuan hartu lan horretan agertzen diren bestelako arrazoiak: *zaharregia izatea*, EAEn bigarren lekuan agertzen dena, eta aurretik ezagutzaren bat izatea (*Dakidanarekin moldatzen naiz*), laugarren lekuan agertzen dena.

Euskaltzaleen artean euskaraz ikasi dutenak nabarmentzen dira, eta *Mesfidatien* artean *Gaztelaniaz* ikasi dutenak.

- ▶ Aipatutako faktoreetatik, soilik lehen biek erakusten dute lotura euskal sentimendu abertzalearekin –positiboa *Euskaltzale*-faktorearentzat eta negatiboa *Mesfidatiarentzat*–, lotura hori desagertu egiten bada ere 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan.

Aipatutakoak estatistikoki baieztatzen du bai iritzi-joera *Euskaltzalea* eta baita *Mesfidatia* ere ongi bereiztutako testuinguru soziolinguistiko –edo subkultura– ezberdin banatan oinarritzen direla, kontrajarriak ere izan daitezkeenak. *Euskaltzaleen* iritziak sortuak izan dira euskara ohikoa den giroetan: hizkuntza nagusia euskara duten gurasoak, euskaraz eginiko ikasketak, eta familian, lankide edo ikaskideekin eta lagunartean euskararen erabilera handi samarra den ingurugiroak. Aldiz, *Mesfidatien* euskararekiko iritzi-joerak gaztelania du ardatz linguistiko, eta euskara arrotza da haientzat. Diskurtso sozial biak unibertso soziolinguistikoaren aurkia eta ifrentzua balira bezala dira EAEn.

Onarpen Pasibo motako iritzia adierazten duen taldea bi ikuspegi horien distantziakidea da, eta neurri batean, hizkuntzari dagokionez, jarrera axolagabea hartzen du, hizkuntzaren harira egiten dena pasiboki onartuz eta iritzirik adierazi gabe; hots, orokorrean ontzat ematen dute euskara, baina aurreko bi jarrerak, alde edo aurka, erakusten zuten bizipen eta lotura afektiborik gabe.

Abantaila Sozialen joera independentea da hiru iritzi-joera horiek darabilten ardatzetatik, eta agerian jartzen du euskararen historia sozialean duela gutxira arte ezohikoa izan den dimentsio bat: euskara ezagutzeak suposatu dezakeen sari soziala.

Azkenik, iritzi-joera horien artean ezberdintasun aipagarri batzuk ere agertzen dira, biztanleria orokorra edo gazteak kontuan hartzen baditugu. Alde batetik, gazteen kasuan garrantzia galtzen dute aldagai talderen batek edo batzuek, faktore guztietan. Honela, *Euskaltzale* eta *Mesfidati* faktoreetan identitate politikoa (euskal sentimendu abertzalea izatea edo ez), biztanleria orokorraren kasuan garrantzia duena, bazterrean geratzen da gazteen kasuan. *Onarpen Pasiboa* duten gazteen artean ere gaitasun linguistikoaren eta transmisio eragileen aldagaiak desagertu egiten dira; *Abantaila Sozialaren* iritzia dutenen kasuan euskaraz gaitasun linguistiko izatearena desagertzen da soilik.

Hala ere, ezberdintasun nabariena da gazteen kasuan iritzi-jarrerak lotuago agertzen direla euren ingurune hurbileko aldagai soziolinguistikoetara, biztanleria osoaren kasuan baino. Beste modu batean esanda, inguru euskalduneko jatorria duten eta inguru horietan harremanak dituzten gazte-taldeak iritzi-jarrera *Euskaltzaleagoak* dituzte eta, orokorrean, harremanak euskarari bizkar ematen dioten inguruetan dituztenak jarrera-iritzi *Mesfidatiagoak* erakusten dituzte. Hots, gazteen artean ere agerian geratzen da, eta biztanleria osoaren azterketan baino nabarmenago egiten da, bi ingurune soziolinguistiko kontrajarriren existentzia.

Iritzi-jarrera edo faktore horien oinarrien eta ezaugarrien irakurketa sintetikoa, eta aldi berean interpretatzailea, egiterakoan konturatuko gara hiru lehen joera horiek argumentu-ardatz beraren parte direla. Ardatzaren mutur batean azalpen gaitasun handiena duen iritzia legoke *–Euskaltzaleena–* eta beste ardatzean bigarrena *–Mesfidatiena–*, hirugarrena *–Onarpen pasiboa–* bien artean kokatuko litzateke. Ardatz horrek, ia agortu egin du azterketa honetan azaldu dugun diskurtsoa, eta beraz, faktore horietan eragina duten aldagaiei so eginez gero logikoa dirudi ondorio honetara iristea *–etorkizuneko lanetan hipotesi maila har dezakeena–*: euskal gizarteak euskararen gainean dituen iritzi eta jarreraren egitura, *defentsa/axolagabekeria/arbuiatzea* ardatzaren inguruan eraikiak dira ia bere osotasunean.

Diskurtsoaren zati txiki bat baino ez da beste ardatz baten inguruan eraikitzen: euskarari *Abantaila Sozialak* egozten dizkietenen iritzi-jarrerak, hain zuzen. Ondorio horrek, aurretik aipatu dugun Baxoken (Baxok *et al.* 2006) ikerketaren ondorioekin bat egiten du. Hori guztia, euskarak hizkuntza gutxitu bezala bizi duen egoerari zor zaio. Aldiz, nazioarte mailan prestigioa duen hizkuntza bat balitz, edo *lingua franca* balitz, ziurrenik egoera oso bestelakoa litzateke, eta aztertutako laugarren faktorearen garrantzia *–Abantaila Sozialena–* nabarmen handiagoa, euskararen gaineko *defentsa/axolagabekeria/arbuiatze* ardatzaren kaltetan.

6. Azken gogoetak

Ikerketa ugari dira esaten ari direnak, behin eta berriz, gizarte-elebitasuna luzaroan mantentzea ezinezkoa dela, horretarako historiak eskaintzen dituen adibideetan oinarritzen direlarik. Adierazpen hori egiteko erabiltzen den arrazonamendua da, denbora igaro ahala, bi hizkuntzetako batek bestea fagotizatzen duela, pixkanaka erabilera funtzioak kenduz eta bere gain hartuz.

Ez dagoena hain argi da, halaberharrez, horrek horrela izan behar duenik beti, edo posible den gizarte-elebitasuna mantentzea ingurune soziolinguistikoaren baldintzetan esku hartze egokia eginez gero eta erabilera arauak era inteligentean arautuz gero. Zentzu horretan, V. *Inkesta Soziolinguistikotik* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012) erartzen denez, euskararen normalizazioaren aldeko esku hartze prozesuak martxan jarri diren ingurune geografiko edo erabilera esparruetan euskararen erabilerak gora egin du; aldiz, betikoan da edo ez du nabarmen gora egin esku hartze hori eman ez den inguruetan.

Gure txosteneko datuek erakusten dute EAEko egoera soziolinguistiko orokorra gaztelaniaren aldekoa dela, hainbat modutan: a) biztanleriaren zati bat, soilik, da gai bi hizkuntzetan; b) gai direnen gehiengoa hobeki aritzen da gaztelaniaz; c) publikoki, euskara aldekoen eta mesfidatien arteko tirabiran kokatzen da, gehiengo batentzat erakargarri eta eztabaidaezin bihurtzen duen sari edo abantaila sozialik gabe.

Guzti horri gehitu behar zaio, gure gizartean eguneroko harremanetan gaztelania erabiltzen dela, eta harreman horiek elebidunak izateko arazoak eta lan eskerga egon daitezkeela. Horregatik, bi lan-ondorio –edo hipotesi sendo– atera ditzakegu:

1. Benetako arriskua dago, egungo *gizarte-elebitasun desorekatuaren* egoerak euskara bazterrean eta atzera bueltarik gabe uztea, urteen poderioz.
2. Errealitatean ez dira inondik ere betetzen eskubide linguistikoak bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak, indarrean dagoen araudian aurreikusten badira ere, txostenaren hasieran aipatu dugun moduan.²⁵

Azterketa hauek eskaintzen duten informazioak erakusten du elebitasun indibidual eta gizarte-elebitasun orekatuak lortzeko, nolabaiteko garrantzia baduen arren, ez dela nahikoa hizkuntza baten dimentsio subjektiboan esku hartzea (balioetan, iritzietan, jarreretan).

²⁵ Gogoratu aipatutako bi artikulua: “Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz” eta “Herri-agintek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte”. *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen* 5. eta 4. artikulua, hurrenez hurren (Azaroaren 25ko 10/1982 legea, EHAO 160, 1982ko abenduaren 16koa).

Dena den, burugabekeria litzateke subjektibotasunaren eragina ukatzea, horrela eginez gero euskara normaltzeko ahaleginak kaltetuta suerta litezkeelako:

...baiezta dezakegu hizkuntza eta kultura anitzeko testuingurutan (...) bertako jarrerazko joerak sakon ezagutu gabe ezartzen den edozein hizkuntza politikak ziur aski ondorio negatiboak izango dituela: gizarte amorrua, desengainua eta jasan behar dutenen aldeko onarpen txikia. (Lasagabaster, 2013: 29)

Hala ere, egia da hizkuntza-gaitasuna zein erabilera lotuago agertzen direla elementu soziolinguistiko objektiboetara subjektiboetara baino: gaitasun erlatiboa, transmisio eragileak, erabilera inguruneak, bizi-zikloarekin zerikusia duten egoerak; abantaila sozialak... Gainera, baldintza objektiboen indartzeak baldintza subjektiboen hobekuntza ekarriko luke, diskurtso ez hain ideologikoa indartzearekin batera euskararen irudi soziala hobetuko bailitzateke, txosten honetan *Abantaila Sozial* moduan izendatua izan dena.

Beraz, dirudenez euskararen aldekoagoak diren baldintzak, indibidualak (elebitasun indibidual orekatua) zein sozialak (gizarte-elebitasun orekatua), sortuz eta denboran zehar mantenduz bakarrik lortu daiteke:

- a. Gaztelaniaren aldekoa den egungo gizarte-elebitasunak pixkanaka euskara ordezkatu eta desagertzeraino eraman dezan ekiditea.
- b. Egoera hori, EAEn gaur egun dauden bi hizkuntza ofizialen arteko oreka-erreal –ez soilik legal– batetara eramatea.
- c. Modu horretan, legearen betetze maila handiagoa ahalbidetzea.
- d. Gaur egun EAeko biztanleriaren zati baten ondarea baino ez den euskara, biztanleria osoarena ere izan dadin ahalbidetzea.
- e. Biztanleria osoari bermatzea hizkuntza bat edo bestearen hautua askatasun osoz egiteko ahalmena –harreman pertsonaletan, sozialetan zein profesionaletan–, mota ezberdinetako hizkuntzarenegatiko diskriminazio egoerak ekidinez.
- f. Modu horretan, bizikidetzaren harmoniatsu batetarako oztupoak gainditzeko baldintzak indartuko lirarteke, gizartearen gehiengoarentzat.

7. Erreferentzia bibliografikoak

- BAXOK *et al.* (2006). *Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- BOURHIS, R.; GILES, H. eta ROSENTHAL, D. (1981). Notes on the construction of a 'subjective vitality questionnaire' for ethnolinguistic groups. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 2 (145-155).
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2011). *Euskera: erabilera, jarrerak, politikak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Gobernua. http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_1otef3_euskera/eu_1otef3/adjuntos/1otef3_euskera_eu.pdf (kontsultaren data: 2013-01-31).
- GILES, H.; BOURHIS, R. eta TAYLOR, D. M. (1977). Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations. In H. Giles (ed.), *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348). New York: Academic Press.
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (Eusko Jaurlaritzako) (2012). *Euskal Autonomia Erkidegoa. V. Inkesta Soziolinguistikoa*. http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EHinkestaren_laburpena_2011.pdf (kontsultaren data: 2013-03-18).
- FASOLD, R. (2010). Hizkuntzaren inguruko politika. In Fasold, R. y Connor-Linton, J.: *Hizkuntza eta hizkuntzalaritza: hastapenak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea (399-428).
- MEULMAN, J. J. eta HEISER, W. J. (2005). *SPSS Categories 14.0*. Chicago: SPSS Inc.
- MARTÍNEZ DE LUNA *et al.* (2010). *Estudio sobre el uso lingüístico de los alumnos y alumnas en el entorno escolar*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Gobernua.
- LASAGABASTER, D. (2013). Hizkuntza aniztasunaren iraunkortasuna. In Lasagabaster, I. (koord.): *Iraunkortasuna Unibertsitatetik abiatuta: disziplina arteko hausnarketa*. Leioa: UPV-EHU (13-33).
- UNZURRUNZAGA, A. (2008). ¿Qué hacemos con la pluralidad lingüística realmente existente?. In Xabier Aierdi eta Belen Uranga (Ed.): *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Gobernua (36-39).

